



ARGIA



Euskara ikastea guztiz doan, noizko?

Bidea erraztea estrategikoa da

26-31. orrialdeak

2.894 | 2024 / 11 / 24 | 4,00 €



"Ez naiz ausartzen esatera nora iritsiko naizen"

16 | MADDI AGIRRE



'Superbotereak' liburu berria: eskola eraldatzeko 10 urrats

32 | KOLDO RABADAN



LARRUN #301
Fermin Muguruza,
elkarrizketa

“

Kontatzen ez bazara, kontatzen zaituzte.

Katixa Agirre

Bada esaldi bat
pentsamendu bakoitzarentzat...

Badakizu?

Egin zaitez **Jakinkide**

Urtebetez doan.

Paperean edo digitalean
etxean jasoko duzu.



Jakin _____ dabilen
pentsamendua

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: UNAI GAZTELEMENDI

Iritziak

- 21 | IKER IRAOLA
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | ARKAITZ ZARRAGA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | GORKA MENENDEZ

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU

GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



32 | KOLDO RABADAN IRAKASLEAREN LIBURU BERRIA

2021ean Bidean liburua ateratu zuen irakasleak orain *Superbotereak* liburua ateratu du, ARGIAren. Ikastetxe batek bere burua eraldatzeko egin beharreko urratsak azaltzen ditu, indarguneetatik abiatuta, ahulguneak seinatu beharrean. Gorka Peñagarikano egin dion elkarrizketan. Ikasleek ere begirada aldatzea proposatu du: "Zenbat falta duen baino, egiten duen horretan zentratzea, edo hori behatzea gehiago".

DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HUBIL

Betirako urpetutako lurrez ordaintzen dute klima aldaketa hego sudanen

Nicolas Goñi

16 | PERTSONAIA | MADDI AGIRRE

"Nire ametsa izango litzateke Xenpelarrekin kantatzea"

Miel A. Elustondo

26 | EUSKARA DOAN IKASTEAN

Pausoak pauso, oraindik hankamotz

Onintza Irureta

36 | NAZIOARTEA | KARINA RENTERIA

"Petrok lau urtetan ez du konponduko Kolonbiako problematika, baina hobetzeko esperantza daukagu"

Leire Artola

46 | KULTURA | LEIRE LAKASTA

"Hitzak harriak dira Ernauxentzat, eta idazketa labana"

Larraitz Fagundez

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra **Nafarroako Gobernua**
Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene
Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012
ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
ADUR software
productions

Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan egin ez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA

OLATUKOOP

 Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara





Harrapariak

40 urtez Erandion bizi izan den 70 urteko herritar bat eta bere biloba etxerik gabe utzi dituzte. Emakumeak %69ko desgaitasuna du, eta alargun pentsioa da haren diru sarrera bakarra, hilean 700 bat euro. Baldintza engainagarriak eskaintzen dituen mailegu emaille batek eragin du egoera. Bizimodu prekarioaren putreak dira enpresa horiek. Egoera larrian direnen etsipena eta larritasuna baliatzen dituzte, konponbide gisa eskaintzeko mailegu azkarrak, letra txikian gehiegizko klausulak dituztenak. Baina akabuan, azkartzen den bakarra da hasierako zorra. Besteen miseria ustiatzeko gai dela erakutsi digu kapitalismoak hainbatetan, baina herritarren zaintzaz arduratzen omen den Poliziak zer egiten du haien indarkeria harraparien zerbitzura jartzen?

📍 Etxegabetutako emakumea babestera joandako hainbat lagun zauritu zituzten ertzainek, bi pertsona atxilotu eta horietako bat osasun etxera eraman behar izan zuten, jasandako jipoiagatik.

MIKEL MARTINEZ DE TRESPUNTES / FOKU

AXIER LOPEZ

AEBen irismen handiko misilak baliatzeko baimena du Ukrainak

 JON TORNER ZABALA

Urtarrilaren 20an utziko du AEBko presidente kargua Joe Bidenek, lekukoa Donald Trumpi emanda –zeinak AEBen norabide aldaketa marka dezakeen Ukrainako gerran-. Agintaldia amaitu aurretik, baina, irakurri dugu Ukrainari baimena eman diola Errusiako Kursk eskualdean AEBen ATACMS irismen handiko misilak erabiltzeko.

Ukrainako presidente Volodimir Zelenskik hainbatetan eskatu dio Bideni misilak –300 kilometroko irismena dute– erabiltzen uzteko, eta orain eman dio baiezkua AEBko presidenteari, hango hedabide nagusiek iragarri dutenez –Etxe Zuriak, Pentagonoak eta Ukrainako gobernuak ez dute oraindik adierazpen ofizialik egin–. Zergatik orain? Antza, Ipar Korearen esku-hartzea legoke erabakiaren atzean, *The New York Times* egunkariak publikatu duenez, Washingtongo iturri ofizialak aipatuta. Ipar Koreako 10.000 soldadu inguru –AEBek emandako datuen arabera– batu dira gerrara, errusiarrei laguntzera. Udaz geroztik Ukrainak menpean dauka Kursk eskualdearen zati bat, eta Errusiak haren kontrola berreskuratu nahi du, ipar korearren laguntzarekin orain. AEBen intentzioa litzateke Ipar Korea ohartaraztea, haien tropak "zaugarriak" direla erakutsi eta Errusiara soldadu gehiago ez litzuzkeela bidali behar esatea.

Bada beste gertaera bat, Bidenen erabakiarekin lotu dutena batzuek:

AEBen irismen handiko misilen inguruak ezagutu ditugu Errusiak Ukrainako energia-sistemaren aurkako eraso masiboa egin eta denbora gutxira. Errusiak 120 misil eta 90 drone jaurti ditu eta bi pertsona hil ditu. Zelenskik jakinarazi duenez, hainbat eskualde azpiegitura elektrikorik gabe geratu dira.

Misilak baliatzeko baimenak gatazkaren nondik-norakoak aldatuko ote dituen ikusteke dago, nahiz eta Errusiak "Hirugarren Mundu Gerraz" hitz egin duen. Kremlineko bozeramaile Dimitri Peskovek esan du AEB "sua pizten" eta "tentsioa areagotzen" dabilela; eta Putinek esana dauka erabakiak erakutsiko lukeela NATOko herrialdeak, AEB eta Europako estatuak, "Errusiaren aurka borrokan" ari direla.

Donald Trumpek hauteskundeak irabazita, AEBek Ukraina eta Errusiaren arteko gerran duten papera alda daiteke. Presidente kargua hartzean gerra amaituko dela iragarri du Trumpek. Mikel Aramendik honela azaldu du ARGIAN: "Trumpek irmo uste du Txina dela are-rioa. Nagusia ez ezik bakarra; beste jazar- go guztiak, maila apalagoko gorabeherak lirateke, kasik baztergarriak. Eta ñabar- dura horrek eginarazten dio talka zuzen-ean Biden- eta Obama-administrazioen geostrategiaren zutabe nagusienetako- a izan denarekin: haientzat, Errusia betie- reko etsai moldakaitza izan bada, Trum- pen iritzi edo asmoa da AEBak Errusia- rekin adiskidetu eta hura Txinarekin etsaitzea lortu behar duela". ●

EHUko errektoreordearen kontu anonimoa, iraintzeko sortua

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Modu iraingarri eta mespretxa- garrian, komunismoari loturi- ko ustezko atxikipen-politikoak egotzen zizkion, besteak beste, Guillermo Quindós egungo errektoreordeak eta Eva Ferreiraren hautagaitza zerren- dan dagoen kideak hauteskundeetara aurkeztuko den beste taldeari, Joxerra- mon Bengoetxea buru duenari.

Informatikako ikasle batek pasatu zion informazioa Bengoetxearen tal- deari. "Erraza" izan da datuen berres- tea, Bengoetxeak berak jakinarazi due- nez, antza, Guillermo Quindós beraren telefono pertsonala eta helbide elek- tronikoa zeudelako kontuari atxikita. Bengoetxeak eskerrak eman dizkio in- formatikako ikasle horri, eta "balorean" jarri du "EHUn dugun talentua". Talen- tutsua ez da izan, beraz, EHUren erre- ktoreorde eta Eva Ferreiraren hautagai- tza zerrenda berrian orain arte zegoen Quindós-en jardunbide ezkutua.

Sare sozial batean troll kontua sortua zuen, faltsua eta anonimoa, Bengoetxea eta haren taldea iraintzeko eta difama- tzeko. Besteak beste, Bengoetxearen taldeko zenbait norbanako "komunis- moari" lotzen zituen, pentsamendu hori kritikatu eta horri loturiko ustezko atxi- kipek-politikoak seinalatzen zituen, es- kuin muturrak egin ohi duen gisan. Ho- rixe egiten aritu da Zientzia eta Gizarte Garapenerako eta Transferentziaren arloko errektoreordea, Mikrobiologian katedraduna ere badena.

Joxerramon Bengoetxeak berak egin du salaketa. Hori entzun duenean, Eva Ferreira egungo errektore eta beste hau- tagaiak bere taldea batzartu du eta exijitu egin dio dimisioa Quindósi. Halaxe egin du segituan. Dena dela, eta oraingoan aurpegia emanda izan bada ere, ez da isi- lik geratu eta ez zaio aurpegia falta izan: mezuak "testuinguru pertsonal" batean zabaldu zituela esan du, "irismen murri- tzarekin", beste hautagaitza-taldearen irudian "eragiteko asmorik gabe". Hori esanda, "barkamena" eskatu du gero. ●



Zelenski eta Biden, pasa den ekainean.

Bizitzeko




UXUE APAOLAZA LARREA

Autoestimua batzuetan gauza intimoa dirudi. Baina autoestimua zerikusia baldin badu norberak bere buruaz duen irudiarekin, norbere buruari ematen zaion balioarekin, zerikusia izango dute hartu ditzakeen erabakiek ere. Zer balio du erabakirik hartu ezin duen norbaitek? Eta jartzen gara orduan amari begira. Eta erabakitzen dugu gure partez erabakitzen zuela, eta ez zituela ospatzen gure hautuak, izatez, fidatu ere ez zela inoiz gure irizpidez fidatu, eta beti sentitu gabela zuzenduak, eta... amek egiten dizkiguten gauza maltzur horiek guztiak (uteroan gaudela hasten dira amak gu puteatzen: estresatuta dago, erre egiten du, edo txorizoa jan, eta lehen traumak sortzen dizkigute).

Eta, agian, joango gara eskolaraino. Andereñoak daude eskoletan: ikasturte amaierako festak neska gaztez zaindutako haur taldeak dira. Eta andereñoek amek bezainbeste traumatizatzen gaituzte, ez dituztelako gure jakin-mina, sentimenduak eta mugimendu beharra ulertzen, eta ikastera behartzen gintuztelako eserita, biribilean.

Gutxitan jotzen dugu egunkarietara gure buruko arazoak azaltzeko. Gutxitan uste dugu erotu gabela pandemian ezin genuelako erabaki guretzat zer zen ona, edo DANaren bat gertatuta ez dugulako gu eta geureak eta inguruko espeziekideak, inguruko beste espeziekoak babesteko aukerarik izango, gure baliabideak ez direlako gureak; edo Palestinan hiltzaile egiten gaituztelako; gurean iritsi berrien zapaltzaile; ez dugu uste erotu gabela gure ilusioa txostenetan ito delako. Ez dugu uste autoestimua galtzen dugunik gure edozein erabaki esanguratsu indarkeria ekintzat joko delako.

Agian, arrazoi zuten denek, ez erabakitzeko prestatzen gaituztenek. Badakite klase batekoak gabela, badakite genero batekoak gabela, badakite... ezingo dugula erabaki, eta horretara ohitu egin behar dela. Batzuk hiltzen dira erabakiak hartzea arriskutsua dela ohartu gabe, hartzen dituztela uste dutelako etxea nola ordenatu erabakitzean, zer jantzi, ez haserretzea (amorruek kalte egiten baitio daramanari, diote ergelek). Ohartu eta marmarka hasten bazara, "bai, bai, nahi duzuna, baina zein gizartetan bizi behar duzu?" birbideratuko zaituzte, eta lortzen ez badute, nolabait hil. Ahal badute. Seguruagoa da autoritatea inoiz ez identifikatzea. Seguruagoa da bizitzeari uko egitea. Bizitzeko, hiltzeko prest egon behar da. ●



MOTZEAN

"Nazio gisa eskubideak aldarrikatu eta herri oso bat martxan irudikatzeko" manifestazioa deitu du Gure Eskuk, 2025eko ekainaren 7rako, Bilbon. Euskal Herri libre eta kohesionatu bat osatzeko "denen artean eta elkar lagunduz" lan egin behar dela adierazi du mugimenduak. Azaroaren 16an, 12 orduko bideo katea egin dute.

"Gazteen emantzipazioa bultzatzeko" kenkariak aurreikusten ditu EAEn EAJ-PSEk adoturiko erreforma fiskalak. Gainerako alderdiek zuzenketak egiteko epea ireki da orain.

Biarnoko Betharram ikastetxe katolikoan jasandako indarkeria fisiko-sexualaren biktimek eta ikastetxeko ordezkariak lehen aldiz bilduko dira, biktimei entzutea helburu.

Silizearen hautsak sorturiko gaitz eta biriketako minbizi kasuek ez dute etenik azken urteetan. Kristal-silizea duten kuartzozko sukalderako mahaiaik egitea debekatu nahi dute.

Georges Abdallah askatzeko agindu du Frantziako Justiziak, Europako preso politikorik zaharrena (40 urte preso). Abenduaren 6an utziko dute aske.

Datuak lurraldera




ULA IRURETAGOIENA

Azken asteotan, arkitekturaren dihardunontzat ez da posible izan Valentziako klima gertaera gure lan hizketaldira ez ekartzea. Uraren ibilbidea eraikinen estalkietan, estolderietan, plazetan eta parkeetan pentsatu eta diseinatu behar ditugulako. Ongi dakigu giza eskalako ur txiki hauek bailarako uraren ibilbide handiaren fenomenoarekin bat etorri ezean gutxi lortuko dugula, biak aintzat hartzea ezinbestekoa baita. "Azkenean kasu egingo ote digute!" esan du lankide batek. Baina eraikinaz gaindiko erabakiak beste mahai batzuetan hartzen dira. Jakintza eta informazioa izanik ere, teknologiak posible egiten du ibaiaren ubide egitea edo lurrazpiko aparkalekuak uholdegarria den gunean eraikitzea, eta arriskua urtzen da ahalguztidun sentitzean.

Erabakiak hartzeko unean, diseinuan eta politikagintzan, informazio kantitate andana daukagu. Datu bilketa geolokalizatu eta datuak jasotzen dituzten administrazioen arteko armonizazio lana ikaragarria da; luraren tenperatura, uholdegarritasun arriskua, etxebizitzaren prezioa eta hildako kopuruen datuak pantailako mapa batean gainjartzera iritsi gaitezke klik batean. Lurralde jakin bat ezagutu dezakegu lurralde bisitatu gabe, datu askoren trukaketa bidez ezagutza sakon bat eskuratzeko gaitasuna dugulako, esperientziaren ignorantziarekin. Baliabide boteretsua –bere arriskuekin–, ongi erabiltzen denean.

Datuekin etorkizuna iragartzeko prest gaude, proiektzioak egin eta, horien bidez, politikak ezarrita; zenbategian haziko den biztanleria, zenbategian aldatuko den kostaldeko muga, zein gune den uholdagarritasunaren aurrean zaugarrien, zein zona den tenperaturaren igoerarako hauskorrena. Datuek, errealitatea deskribatu nahi badute, dinamikoak izan behar dute. Plangintzarako erronka itzela da datuen eguneraketaren bidez arautegi malgu bat kudeatzea, datu bilketari etekin nahikoa atera gabe gabiltzalarik. Adimen Artifizialari galdetu beharko diogu... ●



Mapan, gorrix, EAEko lur potentzialki kutsatuak. Guztira 12.467 dira eta horietatik 1.557 dira zabortegiak, gainerakoak, industria lurrak.

EAEn 1.557 zabortegi daude eta erabiltzen ez direnak zigilatuta ezean, ura kutsatzen jarraituko dute

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Legearen arabera, erabiltzen ez diren zabortegi guztiek itxita eta zigilatuta egon behar lukete 2008tik. Ekologistak Martxan taldea Eusko Legebiltzarrean izan da legea bete dadila eskatzeko: azaroaren 12an Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren batzordean parte hartu du eta oroitarazi du EAEn erabiltzen ez diren zabortegiak ura kutsatzen jarraitzen dutela: "Hau ez da ingurumen arazoa soilik, osasun publikoko afera ere bada". Alderdi politiko guztiek "asmo onak" erakutsi dituztenez, eskatu die gai hau aurrekontuetan sartzeko eta lan mahai bat martxan jartzeko, "EAEn erabiltzen ez diren zabortegi guztien ikerketa, inbentarioa, egutegia eta zigilatzea egiteko". Talde ekologistak jakinarazi du Europak norabide berean presio egin diola Espainiako Estatuari: "2024ko otsailaren 9an jakin genuen Europar Batzordeak Espainiako Estatu Justizia Auzitegira eramango duela hondakinei buruzko europar zuzentzarauak ez betetzeagatik eta aukera dagoela isun ekonomiko handiak ezartzeko. Espainiaren aurkako auzia bada ere, uraren eta hondakinen kudeaketa partekatua da, Espainiako Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean".

Zabortegi horietako askok amiantoa edo lindanoa bezalako hondakin arriskutsuak pilatuta dituzte. Lindanoa dago, adibidez, Santurtziko Etxeliko zabortegian, Lemoizko Jata zabortegian, Bilboko Artxandan eta Santo Domingon eta Gasteizko Gardelegin. Ekologistak Martxaneko kideek adierazi dute horren ondorioa dela urak kutsatu egiten direla: "Okerren dagoena Nerbioiko Ibaizabal estuarioa da, Aztiren txostenetan ikus daitezkeen moduan". Baina substantzia horiez gain, beste asko eta asko ere ura kutsatzen ari direla gehitu du.

Ekologistak Martxanek azaldu du badagoela zabortegiak itxi eta zigilatzen lagunduko duen lanerako erreminta baliagarri bat: lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioa. Bertan EAEko 12.467 lurzoru agertzen dira potentzialki kutsatu moduan. Gehienak, 10.910 lurzoru, industrialak dira, eta 1.557 lurzoru zabortegiak. Zabortegi horietatik 718 Bizkaian daude, 531 Gipuzkoan eta 308 Araban. ●

%0,9

igoko dira pentsioak Ipar Euskal Herrian, urtarrilaren 1etik aurrera. Uztailaren 1ean, gutxieneko soldataren azpitik dauden pentsioen balioa handituko da.

Inflazioa, baina, %1,8 igoko da 2025ean, Frantziako Gobernuak aurreikusi duenez.



%20

igo dira azken urtean Osakidetza-ri eginiko erreklamazioak. 2024ko urtarriletik irailera, 34.184 erreklamazio ipini dituzte herritarrek Osakidetza, 7.697 kexa eta 1.331 esker on adierazi.

10.549

ikaslek eskatu dute unibertsitateko matrikulak merkatzea eta bekak hobetzea. Doako unibertsitatea aldarrikatu eta EHUren erantzukizuna seinalatu dute, Unibertsitateko Indar Batasunak abiatutako sinadura bilketaren bidez.

“Sare sozialak gure haurrak kaltetzen ari dira eta amaiera jarri nahi diot horri”

ANTHONY ALBANESE
AUSTRALIAKO LEHEN MINISTROA

2025 urte amaieratik aurrera, 16 urtez azpikoek ezingo dute sare sozialik erabili Australian. Antzeko neurriak ezarri nahi dituzte Espainiako eta Frantziako gobernuek ere.

2024-11-07



“BEDERATZI ORDUKO LAN-TXANDAK OSASUNAREN AURKAKOAK DIRA, ETA GAINERA EZ DAGO BEHARRIK”

MIKEL DIAZ DE ALDA, LAB-EKO DELEGATUA

Gasteizko Mercedeseko langileek 9 orduko bi txandetan egingo dute lan, eta larunbat goizetan 8 orduz, 2025eko martxotik aurrera, iragarri du enpresako patronalak.

ARGIA.EUS (2024-11-18)

“Menopausia patologizatu beharrean, etapa baten parte gisa bizi behar dugu”

JUNCAL ALZUGARAY
ZURIMENDI

“Klimateriotik menopausiara: Teoriatik gorputzera” ikastaroa ematen ari da fisioa Altsasun.

ARGIA.EUS (2024-11-15)



Gazan bizitzaren alderdi oro jomugan du Israelek

 VISUALIZING PALESTINE / ARGIA



TEKNOLOGIA

Gizakion sorkuntza agortzen?



DIANA FRANCO EGUREN

Adimen artifiziala gizakion eremu asko ordezkatzeko ari dela badakigu: erosotasuna, abiadura, efizientzia... Mundu kapitalista honen abiadura beharretan, gizakion ahalegina oztopo dela sinetsarazi digute. Gure, klase xumeen, egiteko eta sortzeko aukerak murrizteko erasoak leku askotatik datoz, ikusten ari garenez. Courtney C. Radsch Tech Policy. press-en *Dismantling AI Data Monopolies Before it's Too Late* artikulua irakurtzen ari nintzela, zerak eman dit arreta: modu sintetikoan sorturiko testuaren nagusitasuna %90ekoa izan daitekeela bi urtetan Interneten, eta 2028rako gizakiok on-line sorturikoa agortu daitekeela.

Google, Meta, Microsoft eta baita Elon Musken xAI-k ere, datu ugari behar dituzte euren adimen artifizialak modu sakonean entrenatzeko, eta datu horiek lortzeko, Internet azpiegituraren gehiengoaren jabe dira. Aipatu artikuluko egilea izututa dago eta ez du ikusten datu horietatik, Internet horretatik, adimen artifizialek gidaturiko mundutik kanpo existitzeko aukerarik. Gure inguruan ere, pertsona askorentzat Internet Google da. Askok ez daki beste Internet batzuk, sareak sortzeko eta erabiltzeko beste modu batzuk ere badaudela.

Internet ezagutu nuenean, pertsonen ahotsak eskura izateak erakarri ninduen. Lau korporaziok gidatutako makinaren ahotsa bilakatzen bada, ez da nik nahi dudana Interneten. Joan den astean Errenteriako Torrekuan izandako topaketan, eremu digitalean jokatzeko eta izateko bestelako moduak badaudela ulertzeko aukera eskaini ziguten: eskubide digitalak ulertu eta modu feministan babesteko zenbait ildo ere partekatu zituzten. Urteotan, munduko leku askotan beste Internet bat eraikitze eta erabiltzeko moduak sortzen ari da. Ez dut uste dugun Internet hegemonikoak gizakion sorkuntza agortuko duenik, hortik kanpo sortuko baitute. Aldiz, arazo larriena da beste Internet horietatik, feministak eta eskubide digitalak babesten dituzten horietatik kanpo geratzen direnen bizitzak prekariagoak izango direla nabarmen. ●

Mobilizazio arrazistek porrot egin dute

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Lo Que No Te Cuentan de Donosti-k 30 pertsona soilik batu zituen Easo plazan azaroaren 16an, eta haren aurkako deialdi antifaxistak 300. Bestalde, Gasteizko Errota auzoko mobilizazio arrazisten sustatzaileek auzotik irten eta Gasteiz mailako mobilizazioa deitu zuten azaroaren 12an, baina aurreko deialdietan baino are herritar gutxiago bertaratu ziren.

Aurreko asteetan hainbat mobilizazio bertan behera utzi eta gero, 16koa mantendu zuen azkenik *Lo que no te cuentan de Donosti* (LQNC) taldeak. 30 pertsona inguru besterik ez ziren batu "Hiri seguruago bat lortzearren" lelodun konzentrazioa. Aldiz, ordu eta leku berean deitutako kontramaneifestazio antifaxistak 300 bat herritar biltzea lortu zuen.

Ertzaintzak Easo plaza zintaz itxi eta bi mobilizazioak banatu zituen, Inaxio Esnaola kazetariak *Irutxuloko Hitzan* jaso duenez, baina LQNCdren mobilizazioa bere gunetik irten eta kontramaneifestazioarekin aurrez aurre jarri zen. Tentsioak gora egin zuen, eta Ertzaintzak manifestari antifaxisten aurka egin zuen, hainbat zauritu eraginda. Ondoren LQNCdren mobilizazioa plazatik atera zuen Poliziak.

Mobilizazio arrazistaren porrota antolatzaileek onartu zuten egunean bertan Telegram eta Instagram kana-

letan zabalduzko mezuan: "Oso atsekabetuta gaude jendearen erantzunarekin. Beldurratik dela ulertzen dugu. Dena dela, haserreago gaude Ertzaintzaren jokabidearekin. Gure asmoen berri informatzen jarraituko dugu. Egunetik egunera argiago dugu zeintzuk diren benetako faxistak". Antolatzaileena ez ezik Telegram kanaleko partaideen artean ere atsekabea nabaria zen, eta baita haserrea ere, besteak beste bertaratu zirenetako batzuk agertu ez izana leporatu baitzieten gainontzeko taldekideei (kontra gaur egun 2.700 partaide ditu).

Gasteizko Errota auzoan berriz, urriaren 8tik asteartero egin dituzte mobilizazio arrazistak "Delinkuentziazirik gabeko auzo seguru baten alde" lelopean. Iragan astean, ordea, jautzia ematen saiatu ziren antolatzaileek, auzo mailako mobilizaziotik hiri mailakora. "Gasteizko hiritar guztiak deitzen ditugu gure kaleei eta auzoei eragiten dien delinkuentziaren olatuaren aurkako manifestaziora", zioen kartelak. Erdigunean jarri zuten hitzordua, Bilbo plazan, zehaztuz manifestazioa Bakea eta Frantzia kaleetatik igaroko zela: hiriko kale zabalenetarikoa, manifestazio jendetsuenen ohiko ibilbidea. Baina gehienez ere, 100 baino ez ziren izango Bilbo plazara hurbildu ziren pertsonak. ●



INAXIO ESNAOLA / IRUTXULO KO HITZA

BETIRAKO URPETUTAKO LURREZ ORDAINTZEN DUTE KLIMA ALDAKETA HEGO SUDANEN

Hegosudandar gehienak txirotasun larrian bizi izan dira azken bi mendeotan gutienez, eta zoritxarrez, estatu independente bihurtzek ez die egoera hobetu, munduko herrialde txiroena baita, hainbat gerra tarteko. Testuinguru oso hauskor horretan klima aldaketak zailtasun berri bat dakar, gerrek bultzaturiko errefuxiatuei uholdeena gehituta. Lurraldeak jasandako klima aldaketaren kalte horiek nork ordainduko ditu?

 NICOLAS GOÑI

Hedabide handietan gutien aipatzen diren estatuetakoa da 2011n independentzia lortu zuen Hego Sudan. Historian zehar bertako biztanleak luzaz izan dira ustiapenaren eta zapalkuntzaren piramidearen beheko solairuan. Erresuma Batuak Afrika Ekialdearen gehiena kolonizatuta zuen garaian, eta Suezeko kanala kontrolatzeko Egipto militarri menperatzen zuelarik, Egiptorekin batera Sudan kudeatu zuen 1899tik 1956ra. Garai hartako Sudanen barruan, britainiarren politika kolonialak ipar arabiarren garapena lehenetsi zuen, hegoan bizi ziren azal ilunekoak bazter utzita. Eskolak, ospitaleak, bideak eta zubiak eskas zituzten hegoaldean.

1958an Sudan estatu independentea bilakatu eta gero, politika bera atxiki eta hegoa atzean uzten jarraitu zuten. Horrek hainbat matxinada sortu zituen, baita Afrikako independentzia gerra luzeenak piztu ere –lehenak, 1955tik 1972ra iraun zuen, autonomia estatutua lortu arte, eta bigarrena 1983an piztu zen, estatutua kentzeagatik eta 2005 arte iraun zuen–. Bi gerra luze

horietan 2,5 milioi pertsona hil ziren –erraz idazten da– eta bistan dena, herrialdearen azpigarapen egoera ez zen hobetu. Haurdunaldiko hilkortasun tasa eta emakumezkoen analfabetismo tasa munduko gorenak ziren 2011n, estatuaren sorreran. Oinaze zerrenda luze hori pairatzea aski ez balitz, 2013an gerra zibila piztu zen, Salva Kiir presidentearen –Dinka etniakoa eta katolikoa– eta Riek Machar presidentearen –Nuer etniakoa eta presbiteriarra– jarraitzaileen artean, zatiketa politikoa baino, etnikoa eta erlijioaren arabera. Estimazioen arabera, 400.000 pertsona hil ziren gerra zibil honetan. Orduz geroztik, bi etnien arteko gatazkek segitzen dute.

URA ERE ETSAI BIHURTU ZEN

Halako testuinguru politiko eta ekonomikoan ez da harrizkoa Hego Sudango jarduera nagusia industriaurreko iraupeneko laborantza izatea, nahiz eta bertze eskualde txiro batzuk bezala, Balutxistan kasu, baliabide naturalez oso aberatsa den. Burdin, kobre, kromo, wolframita, diamante, teka eta zur aintz bada. Baina esportazioen balioa-

ren %90 petrolioari dagokio, herrialde industrializatuetan erre eta klima aldaketa areagotzen duena, eta Afrikako hainbat herrialdetan "deabruaren kaka" deitzen dutena.

Klimari dagokionez, Nilo Zuriaren arroko goialde honetan bi urtaro izan ohi ziren: lehorra azarotik apirilera eta euritsua apiriletik azarora. Iparrean Sudd izeneko zingiragune zabala puztu ohi zen urtaro hezeko urez, gero urtaro lehorrean ura ibaira itzuli eta lurruntzten zelarrik. Ziklo horren arabera antolatzen ziren abereen transhumantzia eta zerealen ereite eta uztak, betidanik –bertako abeltzain eta laborarien ahozko jakintzaren arabera– 2019 arte.

Azken urteotan, aldiz, klima aldaketak ziklo hori erabat desdoiturik, euriteen urtaroa indartu eta azalera handiak iraunkorki urpetu izan ditu. 2019ko uholdeengatik 290.000 pertsona lekualdatu ziren, hurrengo urtaro lehorrean beren lurretara itzultzeko itxaropenarekin. 2020an, 442.000 ziren lekuz aldatuak eta 2021ean 505.000. Euriteak hain indartsu eta luze bihurtzeagatik, Nilo Zuriak jada ezin du dena xurgatu, lurzoru buztintsuak lokaztu



URPEAN DESAGERTURIK

Unity estatuko azaleraren %90 urpetua da, 2019an hasi ziren eurien ondorioz. Bertakoei nork ordainduko dizkie galdutako lurraldea eta mendeetako bizimodua?

UNMISS

eta hurrengo urtaro hezea datorrenean, ur berria metatzen zaio aurreko urtaro hezetik gelditzen denari. Iparrean den Unity estatuen %90, hau da, Euskal Herriko azalera bider 1,7, urpean dago. 2014an, bertako Bentiu hiriburuan eraiki zuten zelai handi bat, gerra zibileko errefuxiatuentzat. 2023ko urrian, gerra zibileko garai ilunenean baino errefuxiatu gehiago hartzen zituen. Eraiki zutenean ez zen oraindik uholderik, baina ur mailaren azpian da gaur egun zelaia eta lurrezko dikez inguratutik, etengabe ari dira ura ponpatzen.

Baldintza horietan bizirauten dute 150.000 pertsona inguruk, horietarik gehienak abeltzainak edo laborariak

2019ko lehen ezohiko euriteetan petrolio-hodi bat puskatu zen eta inguruko ur eta lurak kutsatu zituen

izandakoak. Abeltzain batzuk hegoaldean den Equatoriako urpetu gabeko lurraldeetara mugitu dira larre berrien bila, ehundaka kilometroko ibilaldian, batzutan ura gerriraino izanik, eta bidean abere asko galdurik, eritasunez

edo lapurretaz. Equatoriara iritsi eta bertako laborariekin tentsioak sortu eta bertako ekosistemak hauskortu egiten dira: jende eta behi gehiagorentzat nola lortu tokia, bertako larre eta so-roak bereganatu gabe eta oihanik moztu gabe? Gainera, etnia ezberdinekoak izateak ez du, noski, tentsioa apaltzen, batez ere, gerra zibilaren zauriek sendatu gabe jarraitzen dutenean eta bake hitzarmena onartzen ez duen talde armatu batek bahiketak egiten jarraitzen duenean.

U HOLDE IRAUNKORRAREN AZPIAN, LURRALDE GALDUA

2020 eta 2022 urteen artean bakarrik,

Bodegas Lezaun

ASADOR - JATETXEA

BISITAK GIDATUAK MAHASTIETARA ·
BISITAK GIDATUAK UPETEGIRA ·
ARDO-DASTAZEAK ·
BAZKARIAK ETA AFARIAK ·
ARDOEN ZUZENEKO SALMENTA ·

📍 LAKAR -DEIERRI- (NAFARROA) 📞 UPEGIA: 948 541 339

WWW.LEZAUN.COM ✉️ INFO@LEZAUN.COM

ERREFUXIATUAK LEHEN LERROAN

Lokatzari eta uholde iraunkorrari aurre egin behar diote Bentiu hiriko errefuxiatuentzako zelai erraldoian.



UNMISS

2,6 milioi pertsona lekuz aldatu ziren Hego Sudanen. Horietarik 1,5 milioi uholdeengatik mugitu ziren, eta milioi bat gatazkengatik, nahiz eta konkretuki biak lotuak izan: gerra zibilaren ondorengo zaugarritasunak uholdeei aurre egiteko gaitasuna murriztu zien eta uholdeek ondorioztatu barne migrazioek gatazkak dakartzate.

Larreak itotzeaz gain, ur geldiek malaria eta ur zikina edatearen ondoriozko eritasunak zabaldu dituzte, baita suge ausikiak ugaltu ere, Mugarik Gabeko Medikuek erakundearen arabera. Ur geldietan arrainak aurkitu daitezke eta arrantzatzen dira, baina ez dituzte

galduetako uztak eta abereak konpentsatzen.

BAITA PETROLIO KUTSADURA ERE

Lur buztintsua, gehiegizko ura, errefuxiatuak, abeltzain erbesteratuak, gatazkak, eritasunak, sugeak eta gainera, beste aldagai anker bat: petrolio putzuak. Bere azaleraren %90 urpetua duen Unity estatuan kokatzen dira petrolio putzu gehienak. 2019ko lehen ezohiko euriteetan petrolio-hodi bat puskatu zen eta inguruko ur eta lurra kutsatu zituen. Kutsadura hainbertze zen azkarra, ezen txahal batzuk bururik edo gorputz-adarrak gabe jaio zirela,

petrolio ingeniari ohi David Bojo Leluk BBC hedabideari azaldu dionez.

Deabruaren kaka: errerik klima aldatu eta lurraldeak urperatzen ditu, txirrotasuna eta gatazkak areagotuta; eta urperatzearekin hodiak hautsi eta bizitzak pozoindu. Egun hauetan Azerbaijaren aitzina doa klima aldaketari buruzko COP29 gailurra –ironia badirudi ere, petrolio saltzaile batek zuzendurikoa-. Herrialde kaltetuenei ordaindu beharreko konpentsazioak hobeki zehaztu behar dituzte. Paragrafo hori idazten dugun honetan ezin jakin ea Hego Sudan behar bezala aipatuko duten, baina, bederen, hemen aipatu nahi genuen. ●




ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Abenduak 3

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA



Bilbao

Maddi Agirre Epelde

BERTSOLARI MATEMATIKARI KANTARI



NIRE AMETSA IZANGO LITZATEKE XENPELARREKIN KANTATZEA



19 urte ditu Maddik, Matematika Gradua ikasten ari da Leioan, EHUko Zientzia eta Teknologia fakultatean, musika ikasketak eginak ditu, eta gazteagatik ere, bertsolari iaioa da. Eta bertsolari ona baino hobea izateko zumitzak ditu, bateko eta besteko plazetan ikusi dugunez. "Jaioko dira berriak"? Bertan ditugu aspaldi!

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Ez dugu hitzordua berehalakoan zehaztu. EHUari zara, Leioan, Matematika bigarren urtea ikasten, eta nahiko estu, denak emanda...

Bai, karrera exigentea egiten ari naiz, eta lan pila egin behar izaten dut. Denbora asko kentzen du unibertsitatean ikasteak. Nire kasuan, uste dut denbora gehiago kentzen didala etxean ikasteak, klaseetara joateak baino. Eskola-orduak egunean lau dira, gehiago ez, baina etxera etorri eta ikasi beharra dago, jai eta aste, eta asteburuetan. Batzuetan, astean zehar, Leioan bertan elkartzen gara zenbait lagun, eta unibertsitateko liburutegian ikasten dugu, zalantzak eta elkarri galdetuz.

Zerk jarri zintuen Matematika ikasten?

Unibertsitatean hasi baino lehen ez nekien nondik joko nuen. Betiko zalantza:

musika bidetik jo [Zeharkako xirula karrera du], edo zientzietatik. Azkenean, zientzia aldetik ekitea erabaki nuen, pentsatuz geroko batean beste arloren bat esploratu nahi badut, errazago izango zaidala literatura, musika edo antzekoren bat berriz hartzea, eta ez zientzia edo teknologia, ze zientzia behin utziz gero, neke da berriz ere arlo horri lotzea. Horixe pentsatu nuen.

Oso hizkuntza exigentea omen da Matematikarena...

Bai, oso. Niri oso gauza harrigarria iruditu zait txikitatik. Matematikariek egiten zituzten lanak eta frogapenak ikusten nituen, eta zeharo bereziak iruditzen zitzaizkidan. "Nik hau ikasi egin behar dut!". Horrelaxe. Batzuek pentsatuko dute erraztasun kontua ere badela, eta egia da *batxi*-n [batxilergoa] oso ondo moldatzen nintzela matematikan -ez

dizut gezurrik esango, kar, kar!-, baina karrera egiten hasi eta lehenengo egunean bertan konturatu nintzen gauza ez zela horrela.

Zer esan nahi duzu?

Batxi-n Matematikan nota onak atera eta super-ona zarela pentsatzen duzu, munduko onena, dena ikasia duzula, eta unibertsitateara sartu eta garbi esaten dizute: "Ikasi duzuna ikasi duzula ere, Matematikaz ez dakizu ezer, oraintxe hasiko gara, zerotik, hau zer den ikasten!". Lehen kolpe horrek izutu egiten zaitu, baina laster jabetzen zara Matematikaren mundua oso ederra dela, institutu garaian ikasitakoa baino askoz ederragoa.

Kolpea esan duzu...

Bai. Gogoratzen naiz, klase batean, ezer ez nuen ulertu! Inoiz ez zitzaidan hala korrik gertatu! Ikasturte hasieran izan



Maddi Agirre Epelde

GASTEIZ, 2005



Azkoitiarra du ama, Olaberrikoa aita. Musika ikasketak egina, Matematika ikasle da orain, eta bertsolari. Ziztuan ari da matematikari ofizioa lantzen, gogotik ikasten, eta su txikian pol-pol-pol egosten, berriz, bertsolari ofizioa. Arabako Eskolarteko Txapelketa izana dugu 2021, 2022 eta 2023an. Aurren, Arabako Txapelketa kantatu du, ez zuen finala iritsi, baina larri ibili. 19 urte ditu, eta gaia duela erakutsi du. Gogoan hartu.

zen, irakaslea zertan ari zen ez nekien. Gero, asteak igaro, eta lana gogotik eginez, ulertzen hasi nintzen! Baina, bitartean, auskalo zenbat audio bidali genizkion elkarriz gelakideok, eta, nire kasuan, Filosofia ikasten ari ziren lagunei-eta! Kexuka ginen, inork ez zuelako ezer ulertzen. Denok egoera berean geunden, eta horrek konplizitatea ere sortu zuen gure artean. Horrek asko laguntzen du, eta gurasoen laguntzak ere bai: “Frenatu, Maddi, deskantsatu. Segituko duzu hurrena!”, esaten zidaten. Eskertzekoa da.

Zenbakien gainean hitz egin behar dugu?

Nirekin ez, behintzat! Ez dut zenbakirik ikusi, karrera hasi dudanetik. Alfabeto grekoko hizkiak bai, ikusi ditut makina bat! Jendeak uste du gure karrera kalkulu etengabe bat egitea izango dela, gero eta kalkulu zail eta konplexuagoak egitea. Baina ez da hala. Matematikan, bizitzan ikasi ditugun teorema nondik datozen ikasten dugu, nola iritsi den gure arrazonomendua halako ondorio jakin batzuetara... Matematikak gehiago du logikatik, arrazonomendutik, pentsaera filosofikotik, kalkulatzeko abilidadetik baino.

Zenbakiak egiten txarra zu, bertso neurri guztiak kalkulatzeko oso ona, kantatzen ikusi zaitugunez.

Kar, kar... Neurria kalkulatzeko doinuak laguntzen du, ez silabak kontatzeak, adibidez. Gainera, puntuka kantatzen da! Txikitik, lau urte-edo nituela, gogoratzen dut etxeko sukaldan ginela, Azkoitian, eta Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala zela telebistan. Ez nuen interesik, jakina, baina jolas egiten nuen, behintzat: doinua hartu, eta neuk asmatutako hitzak kantatzen ni-

tuen. Behin, aitarekin jolas horretan, errimak-eta jartzen, esan zuen: “Hau bertsolaria aterako zaigu!”. Lau urte-edo izango nituen, baina buruan il-tzatu zitzaidan: “Brometan esan duzu, baina ikusiko duzue!”, esan nion neure buruari.

Bai ikusi ere! Hainbat plazatan ikusi zaitugu kantari, dotore. Nola hasi zinen bide honetan, umetako pasadizo harrezkero?

Lehen Hezkuntzako 5. mailan, hezkuntza arautuaren barruan, bertsolaritza eskolak ematen hasi zitzaizkigun Armentia Ikastolan. Aldi berean, bertsolaritza tailerrean eman nuen izena, bazkalondoko tartean. Hortxe hasi nintzen. Hezkuntza arautuko bertsolaritza bukatuta, ikastolako bertso eskolan eman nuen izena. Oier Arbina izan genuen irakaslea. Eta aurrera. Zortziko txikia eta zortziko handia zer diren azaldu ziguten, errima familiak... Gogoratzen dut errima jolas asko egin genituela, eta gero bertsuak idazten hasi ginela. Handik bi urte-edo hasi ginen bat-batean kantatzen...

Nola izan zen pauso handi hori?

Egun batean, nire lagun Eukenek [de los Aires] eta biok, halaxe eskatu genion Oierri [Arbina]: “Inprobisatzen hasi nahi dugu!”. Eta lehenengo koplak egiten hasi ginen, laguntza askorekin, eta denbora asko hartuta!

Txikitako hura bete da: “Ni bertsolari izango naiz!”.

Nik oraindik ere ez dut esaten bertsolaria naizenik. Kar, kar... Sekulako errespetua ematen dit “bertsolari” hitzak. “Plazandrea”-k bezala. Ibili zintezke hamaika plazatan kantatzen, baina, ibilita ere, jende askori asko kostatzen zaio

FINALAURREKOAK

ARRASATE



Abenduak 1, igandea, 17:00



Uarkape Pilotalekua

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Babestea:



ARGIA





bere buruari “bertsolari” esatea.

Niri, behintzat, asko kostatzen zait... Behin honakoa gertatu zitzaidan. Eskolarteko txapelketan hasi ostean, Euskal Herriko finala eta gero, saio pila bat sortu zitzaizkidan. Eta neure burua beti plazan ikusita, “bertsolariago-edo” sentitzen hasi nintzen. Hurrena, Arabako eskolarteko lehen txapela irabazi eta gero, pentsatzen hasi nintzen: “Beharbada... igual... zer edo zer egiten ari naiz!”. Kar, kar... Baina, esate baterako, inoiz ez dut neure burua aurkezten esanez: “Kaixo, Maddi Agirre naiz, bertsolaria”. Inoiz ez!

Matematikaria, bai. Bertsolaria, ez?

Matematikariaren kasuan, unibertsitateak emandako titulua izango dut, eta horrek matematikaria naizela erakutsiko du. Bertsolaritza ez dago halakorik, eta zailago da halako jardunetan zein puntutan zauden neurtzea. Jendeak ni bertsolaria naizela esaten badu, ez dut ezetzik esango, baina ni neu ez noa halakorik inon esatera.

“Maddi, etorri mikrofonora, faborez... Zuretzako gaia, nahi duzun doinu eta neurrian hiru bertso kantatzeko...”.

Eta jarri dizu gaia –zitala, ez gutxitan–, gai-jartzaileak.

Beti dago beldurra, gai-jartzailea nondik aterako den, zer gai jarriko ote dizun. Bestalde, uste dut bertsolariak ere baduela



Ez naiz ausartzen esatera nora iritsiko naizen, ondoko urteetan zer gertatuko den. Txapelduna izan nahi bai, baina...”

ardura –aktualitatearen jakinarenean gainean egoteko, besteak beste–, eta aukera ere bai, bere ideiak plazaratzeko, horretarako du-eta mikrofonoa. Horrekin batera, badaude zenbait gai, konfliktiboak, kantatzeko garaian beldurra ematen dutenak. Baina kezka hori ere kendu egin behar da: zentzua duten gauzak, eta ondo argudiatuta, esanez gero, aurrera!, ez genuke beldurrik eduki behar.

Hamar urteko musika karrera egin duzu, horrek ere laguntzen dizu kantatzeko garaian...

Bai, jakina. Abesbatza batean kantatzen ibili nintzen hainbat urtez, eta asko estimatzen dut egindako lan hori, kantatzekoan ez ezik, doinuak erraz ikasterakoan ere ikaragarri laguntzen didalako. Uste dut kantuan bastante ondo moldatzen naizela, afinazioz eta tinbrez, eta horixe esan dit entzule askok. Garrantzia ematen diot alderdi horri, eta ni neu bertsolariak aditzen egoten naizenean, horri ere begiratzen diot.

Kantarietan kantariena, Xabier Amuriza...

Bera da ezagutu dudana bertsolariarik zaharrena. Joan den urtean izan zen, Mairuelegorretako haitzuloan. Miren [Amuriza] eta biok ginen kantuan, eta han zen Xabier, entzuten. Jende artean zegoela ikusi nuenean, errespetu ikaragarria



TRADIZIOA

“Azkenaldian, bertsolari zaharretatik tiraka ari naiz, deskubritu dudalako tradizioa, edo tradiziozko bertsozintza, ez dela joandako gauza bat, hortik etengabe edaten ari garen iturri bat baizik. Lehengo bertsolarien liburuak hartzen ari naiz, bertso sortak entzuten, lehengo doinu zaharrez jabetzen... Gure lanaren zimentaria iruditzen zait”.

EUSKALKIA (I)

“Gasteizen bizi gara baina Azkoitian [amaren herria] ematen ditugu asteburuak. Gurasoek, ordea, batuan hazi gaituzte ahizpa eta biok. Pena hori badugu, Azkoitiko hizkera heshatik ez jaso izana, nahiz eta hein batean jaso dugun, Azkoitian ematen ditugulako asteburuak. Baina uste dut ez dela nahikoa izan euskalkia ondo barneratzeko”.

EUSKALKIA (II)

“Uste dut gauza izango nintzatekeela konbertsazio bat azkoitiarrere izateko, ez bertakoak bezain elegante, baina Azkoitiko era xamarrean. Baina hara joan, eta pentsatzen dut: ‘Ni ez naiz hemengo. Hemengo modura hasten banaiz, laster hasiko zaizkit kristorenak eta bi esaten!’. Eta gutxitan atrebitzen naiz azkoitiarrere hasten. Asko hitz egiten dugu horri buruz ahizpak eta biok. Esan izan diogu amari: ‘Zertan ez gintuzun azkoitiarrere hazi?’”.

Azken hitza

XENPELARREN FANA

“Nire ametsa izango litzateke Xenpelarrekin kantatzea. Bere liburu irakurri dut, eta asko gustatzen zait bere bertsoak. Bere fana egin naiz”.

eman zidan, ondo kantatu beharko nuela pentsatu nuen! Kar, kar... Baina ondo egin genuen gure lana, eta, gero, saioa bukatu eta zoriontzera etorri zitzaidan Xabier. Ondo kantatzen nuela esan zidan, eta ni pozik.

Zer diozu bertso-lagunen gainean?

Deitzen dizutenean, horixe izaten da gauza, norekin kantatu beharko duzun. Eta, esate baterako, sekulako ilusioa egi-ten dizu, irakurtzean: "Andoni Egaña... Sebastian Lizaso...". Hasierako garaian, bereziki. Lehenengo, egundoko ilusioa izaten da, haiekin kantatzeko irrika bizia. Gero, kantatzeko eguna arrimatzen ari dela, errespetua nagusitzen da berriz: "Ai, ama! Auskalo zer pentsatuko duten... Bertso onik kantatzen ez dakidala-edo!". Baina oso pertsona sinpatikoak dira, ez zaituzte epaitzen, gaztea zarela kontuan hartzen dute eta asko laguntzen dizute. Esate baterako, udan Zaballan kanta-tu nuen Sebastian Lizasorekin, eta oso ondo. Oso berezia izan zen.

Zaballan, kartzelan, esan nahi duzu?

Bai. Sebastian eta biok, eta preso zeuden bik ere kantatu zuten. Izan ere, bertso-eskola antolatu dute Zaballan, eta astean behin edo bitan biltzen dira. Oihane Pe-rea-eta dituzte irakasle, eta izugarritzko erritmoa daramate. Oso onak dira bertso-tan, benetan, eta tartean saioak ere antolatzen dituzte, bertsolari famaturen batekin, eta halaxe izan ginen Sebastian eta biok, haietako batean. Sekulako saioa izan zen. Guk, berriz, kartzelako bizimo-dua ezagutu ahal izan genuen, presoan esperientziak, beren bizimodua... eta zenbat eskertzen duten kanpoko jendea joan, eta bertan kantatzea! Eskuzabal hartu gintuzten, eta nik zeharo mundu ezezagun bat deskubritu nuen. Oroitzapen horixe, betiko.



Gasteizko jaietako bertso-saioan ikusi zintugun, ondoan zenituela Maialen Lujanbio, Gorka Pagonabarraga eta Iñaki Viñaspre. Irati Martinez izan zenuten gai-jartzaile fin. Saio ederra egin zenuten, eta egin zenuen zeuk ere.

Beti ez da horrela izaten baina! Kar, kar... Banuen kezka, Aihotz plazako saioak beti festetan harrapatzen zaitu, eta askotan beste nonbait duzu burua. "Festarik festa nabilela, saioa jarri didate Gasteizen, norekin eta Maialen Lujanbiorekin!, abuztuak 7 dituen batean!". Aurten, aurreko urteetako eskarmentua nuen, eta mentalizatuta joan nintzen: saio ona egiten saiatu behar nuela, bertsolari lagunak kontuan hartuta, ahotsa zainduta, burua ere bere puntuan... Konfiatuta joan nintzen: "Maialen Lujanbio-

rekin kantatzera zoaz, Maddi! Aprobe-txatu! Saio ona egin, gero damurik ez izateko!". Horrelaxe joan nintzen, eta ondo atera zen! Kar, kar... Baina esan dut, beti ez da horrela izaten, hala ere!

Bertsolariren bat? Zure kuttuna, esateko moduan.

Bertsolari askotatik edaten dut, baina azkenaldian Sustrairren [Colina] bertso-kerarekin nago gustatuta: nola lotzen duen bertsoa, puntu bakoitza hurrengoarekin... Bere ironia, bere umore berezi hori, batzuetan iluna... Ez dakit ondo azaltzen, baina asko gustatzen zait bere bertsokera hori.

Txikitan esan zenuen: "Ni bertsolaria izango naiz!". Inoiz esan duzu "Ni bertsolari txapeladuna izango naiz!"?

Pentsatu bai, askotan. Txapeladuna izan nahiko nukeela, pentsatu bai. Esan, ez. Eta txapela, zein mailatan? Eskolarteko bertso txapelketa da bat, eta Txapelketa Nagusia da beste bat. Eskolartekoan bai, esan nuen: "Txapela lortuko dut!". Kar, kar... Eskura ikusten nuen, edo atrebentzia horixe izan nuen. Baina gaur egun ez naiz ausartzen esatera nora iritsiko naizen, ondoko urteetan zer gertatuko den. Txapeladuna izan nahi bai, baina...

Hemeretzi urte dituzu... Duela bi urte, 2022an egin zen Txapelketa Nagusia... Matematikari abila zaitugu, baina kalkulatzaile baldarra, eta ezin jarriko zaitugu kontuak ateratzen, urteen kalkulua egiten. 2026ko txapelketan ez, 2030ean zailtzen zu oraindik... Ea zer dakarren 2034ko Txapelketa Nagusiak Maddi Agirre Epelderentzat.

Kar, kar... ●





Injustizia epistemikoa eskoletan?

Hezkuntzaren Soziologian bada galdera klasiko bat: zertarako existitzen da hezkuntza sistema gizarte batean? Galderari emandako erantzunak ugariak dira, eta aldatuz doaz garaiaren arabera. Baina horien artean nabarmentzekoak ondoko hauek izan ohi dira: eskolak nagusiki etorkizuneko langileak sortzeko xedea duela, batetik, eta hezkuntza sistemaren bidez etorkizuneko herritarrak sortu nahi direla, bestetik. Funtzio ekonomikoa eta politikoa, hurrenez hurren, elkarren artean nahasirik normalean. Gaurkoan bigarrenari behatu nahi nioke, eskolaren funtzio politikoari.

Eskolak herritartasuna sortzeko duen egiteko hori, lurralde orotan, osagai jakin batzuei loturik doa. Ondo dakigun bezala, hezkuntza sistemek ez dituzte munduko herritarrak sortzen, osagai zehatz batzuei lotuta doazen herritarrak baizik. Herritartasuna transmititzen da eskoletan, baina herritartasun hori ez da, ezin du izan, neutroa, eta naziotasuna ere transmititzen da aldi berean. Halaber, badakigu, eta Hezkuntzaren Soziologiaren aztergai kutuna da hori, eskoletan transmititzen diren gauzeta-ko asko eta asko oharkabea hedatzen direla: genero ikuspegiak, lehiakortasuna, nazio ikuspegia eta abar luzea curriculum ezkuaren bidez zabaltzen dira, inon idatzita egon ez arren, batzuetan inor konturatu gabe ere, transmititzen diren balio, ikuspegi, gai horiek guztiak.

Herritartasunaz ari ginen, baina. Nongo herritarrak sortzen dituen hezkuntza

Gehiengo abertzalea egonik, aurreikustekoa da EAEko hezkuntza sisteman nagusiki euskal nazio ikuspegia lantzeko saiakera egitea, eta ez espainiar nazio ikuspegiaren transmisio hutsa

sistema batek. Bada, nongo herritarrak sortzen dituzte Euskal Herriko hezkuntza sistemek? Agian ez da izango hezkuntza sistemaren arazo nagusia, baina estaturik gabeko nazio baten ikuspegitik funtsezko gaia da, ez bada nazio identitate ez-estatalaren transmisioa afera pribatu gisa zokoratu nahi.

Lehen begiratuan, indar politikoan arteko harremanei erreparatuz gero, aurreikustekoa izango litzateke Euskal Herriko mendebaldeko, EAEko, hezkuntza sisteman gai hori argi egotea. Gehiengo abertzalea egonik, hezkuntza sisteman nagusiki euskal nazio ikuspegia lantzeko saiakera egitea, eta ez espainiar nazio ikuspegiaren transmisio hutsa, euskal osagai erregionalarekin. Eskuduntza



IKER IRAOLA ARRETXE
SOZIOLOGOA ETA EHU-KO
IRAKASLEA

mugatuen barruan, behinik behin, Euskal Herri osoa nabarmentzea erabilitako materialetan, mapetan, gaietan, eta ikuspegiaren, oro har. Eta ildo hori ikasleen gehiengoaren artean antzekoa izatea, sare publikoan zein itunpeko ikastetxeetan. Ondoren, curriculum ezkuak bere lana egingo duela jakitun, norabide bat egotea, nolabait.

Baina iruditzen zait askotan ez dela nabarmentzen eskolak euskal nazio ikuspegia transmititzeko duen funtsezko egitekoa, ez dela aldarrikatzen, eta batzuetan ez dela horren kontzientziarik ere. Edo ikastetxeen nahiz irakasle taldeen gain uzten dela, tokiko erabaki gisa. Iaz EAEko Hezkuntza Legearen inguruan egondako eztabaidan, adibidez, gai honek ez zuen dimentsio publiko handirik eskuratu, oinarri oinarritzkoa izanik ere.

Ezagutzaren transmisioa ere gatazka zelaia da, nazio ikuspegiari loturik ere bai. Bere eskoletan bere buruaz hitz egiten ez duen herriak injustizia epistemikoa pairatzen du, ekintza hori kontzientzia handirik gabe eta oharkabea egin arren. Zentzu horretan, pozgarria da ikastetxeetan transmititzen diren nazio identitateak aztergai dituzten ikerlanen berri izatea, berriki *Uztaro* aldizkarian Jon Fernández Iriondok argitaratutakoa bezala, *Nazionalismo subliminala(k) eta testuliburuak: alfabetatze nazional paraleloak Euskal Autonomia Erkidegoan* izenburua duena.

Bada zer hausnartu. ●

Euskalgintza apolitikoari deia



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

Euskararen biziraupena ez da euskaldunok politikaren partidan jokatzeko dugun arazo bakarra, baina bai, euskalduntasunaren elementu bereizgarriena den neurrian, gure egoera gehien islatzen duena. Beste esparru batzuetan hainbeste ageri ez dena oso ongi erakusten du. Hasteko, noraino iritsi den Euskal Herriaren asimilazioa (edo espainolizatzea-frantseseta, gauza bera baita), eta jarraitzeko, nolako jarrera dugun pairatzen duen gatazkarekiko.

Euskararen egoera ez da ona, hizkuntzaren alderdi askotatik frogatu daitekeenez. Toki askotan galduta dago, edo galtzen ari da, frantziar okupaziopeko lurraldeetan mingarriki ikusten ari garen bezala, adibidez. Euskaraz hitz egiten den tokietan ere ari da indarra galtzen, eta inguruko hizkuntza nagusi horien kutsadura gehiegizkoa da, hainbeste, non badirudien euskara ez dela gehiago hizkuntza bat, *morse* moduko bat baizik. Gero, askotan oharkabean pasatzen zaigun detailea dago, jada ez dagoela euskaraz baino ez dakien euskaldunik, horrek esan nahi duenarekin.

Argi dago hizkuntzaren aferari heltzeko urteetan proposatua izan den estrategiak porrot egin duela, eta nahiz

eta agerikoa izan hemengo administrazio (kolonial)jek politika anbiziotsuagoa egin zezaketela, arazoa hizkuntzaren afera aztertzeko darabilgun marko eta kokaleku okerrean datza. Izan ere, Euskal Herriaren gatazkatik erabat deslotuta aurkeztu ohi da hizkuntzarena, horren ondorio ez balitz bezala, edo konponbidea toki beretik etorri behar ez balitz bezala.

Euskararen eskubideez ari garenean, ez da Euskal Herria hizkuntzaren subjektu bezala seinalatzen, baizik eta *hizkuntza-komunitatea*, okerra ez ezik arriskutsua ere baden kontzeptua; gu ez garela New Yorken bizi diren poloniarrek osatzen dutenaren moduko talde minoritario bat, baizik eta nazio bat, nazio ukatu eta zapaldu bat, hizkuntza ere halaxe duena. Euskara bere herriaren arazotik at koka daitekeela uste izatearen orbitan baino ezin da ulertu, zentzu horretan, *euskaltzale* kalifikatzailea, *abertzale* ez direnak baina euskara maitate dutenak izendatzeko erabilia.

Hizkuntzak nazionalak dira, edo ez dira. Hizkuntza "autonomiko"ek ez dute bizirauten, hizkuntza horien jabe diren herriek ere "autonomi"etan bizirauten ez duten bezala, beste batzuen mendekotasunean gatibu. Elebitasuna ez da inon

eta inoiz benetan existitzen, eta horregatik digute etsaiek bide hori proposatzen, hipokrisiaz bada ere. Espainola/frantsesa eta euskararen arteko berdintasun egoera kimera bat da, ameskeria hutsa da hizkuntza horien arteko elkarbizitza orekatua. Euskal politikariek ideia hori elikatzeko logika eduki dezake, beren estrategia politikoa salbatu nahian, hor bide bat dagoela defendatu behar dutelako, bai ala bai. Baina euskalgintzako eragileek? Zergatik kolaboratzen dute ilusioaren kea saltzearen iruzur horretan?

Elebitasunaren bidea gure asimilazioa nahi duen sistema politikoaren proposamena da, ez dagoena euskaldunon umiliazioa eta gutxiagotasuna gainditzeko diseinatuta, baizik eta horietan oinarrituta. Niri oso larria iruditzen zait pentsatzea Euskal Herriaren gaurko egoera politikoaren zilegizkotasuna aitortuta, euskararen auziak behar duena ausardia politiko handiagoko besterik ez dela, esatea borondatearekin dena konponduta legokeela. Ez dakit inozokeria den, baina barkaezina da. Eta ez baldin bada, are gehiago.

Ez dugu denbora alde, eta atzera bueltarik izango ez duen egoera batera iristen ari gara. Mesedez, jokatu arduraz. ●

Tresnak eta formakuntza



**ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI**
EUSKARA IRAKASLEA

“biliz ikasten da ibiltzen, eta kantuan kantatzen”. Horixe izan da aste honetako ikasgaietako bat C2ko taldeetan. Helburua ez zen abesten edo oinez ikastea, gerundioa behar bezala erabiltzea baizik. Zer pentsatua eman dit jarduerak, eta irakasten nola ikasten dugun galdetu diot neure buruari. Askori entzun diot batzuk irakasle jaio direla, baina ikasi ere egin daiteke. Izan ere, laguntzeko nahia eta jarrera oinarrizkoak izanik ere, teknikak ere laguntzen du.

Eskolan aspaldi hasi ginenok hainbat joera didaktiko baliatu ditugu, eta batzuk sufritu. Oraindik dauzkat gogoan solfeoko “teoria” liburu gogaikarri haiek, erdaraz denak, “pentagrama”, “intervalo”, “sinco-pa”... zer diren buruz ikastera bideratuak. Baina, azterketan galdetu egiten zuten, eta ikasi behar.

Didaktika arloan asko idatzi izan da metodologia bakoitzaren inguruan, gehienetan aurrekoak zuzentzera begira, eta, sarritan, haien aurka. Hizkuntzaren irakaskuntzan, esaterako, errepikapenean oinarritutako metodo audiolinguala, morfema eta lexemak bereiztera bideratutako estrukturalak, aditz eta izen sintagmen eta zuhaitz sintaktikoen gramatikalak, testuen arkitekturan oinarritutakoak... Baina askotan curriculumak idazten dituztenak urrun egoten dira ikasgeletatik, eta irakasleak galduta ibili ohi dira irizpi-

de berriak eskolara nola eraman asmatu ezinik.

Horrelakoetan, sarritan, ikasleak kontzeptu berriekin bonbardatu, eta kontzeptu metalinguistikoez behar baino espazio handiagoa hartzen dute ikasketa-prozesuetan. Izan ere, lagun batek dioen bezala, badira irakurtzen ez dutenak baino arriskutsuagoak: liburu bakarra irakurri dutenak.

Egun kohesioa, koherentzia, egokitasuna... dira totem berriak, eta institutuetao gazteek eta euskaltegietao helduek horien beldurrez eratzten dituzte artikulu eta monologoak. Baina, egungo euskara irakasleon helburua litzateke ikasleek euskara erabili eta gozatzea, eta egun ditugun testu teoriko-didaktikoak helduleku egoia izan daitezke hori lortzeko.

Kontua da irakasle gehienek metodologia bakoitzaren abaroan sortutako baliabide didaktikoak erabiliz barneratu ohi dituztela jokamolde berriak, hau da, ariketa motek erakusten digute nola irakatsi. Jakina, tresna horiek ezagutza teorikoekin uztartuta, emaitza askoz hobea izango da. Horregatik, material didaktiko egokietan eta formakuntzan inbertitzea funtsezkoa da ikasle eta irakasleok ikas dezagun.

Kantatzen ikasi eta kantatuz gozatzeko ere kantak erakutsi eta teknika egokiak eskura jarri behar dizkiegu ikasleei; eta kantarazi, sinkopak eta interbaloak zer diren ez badakite ere. ●

Bi begien artean



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Aste oso batez aritu gara Collodiren *Pinotxoren abenturak* liburuaren inguruan, unibertsitateko ikasgelan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleekin. Gure erreferentzia nagusia Galtzagorrik 2011n argitara emandako edizio ederra izan da -hitzaurrea barne, 171 orrialde ditu-, baina euskarazko zein gaztelaniazko beste bertsio batzuk ere ikusi ditugu. Testu osoak nahiz egokitzapenak. Agian, gorde-agerian, luzatu zaio bakarren bati sudurra pixka bat jardunean...

Aspaldiko greziarrek hainbestetan aipatzen zuten patuak nahi izan du guk *Pinotxoren astea* deitutako horretan Trump

irabazle suertatzea AEBetako hauteskundeetan: agian, zurezko panpinak bezala, Trumpek ere boterearen oholztan dantzatu du bere itzala, itxura eta egia bereizten (ez) dituen lerro lausoaren gainean.

Pinotxori ez bezala, ordea, gezur usteletan ibiltzeak ez dio ondorio txarrik ekarri Trumpi, eta hurrengo hilabeteetan egurraren luzeak ikusteko gaudela ematen du. Munduko potentzia ekonomiko-militararren bertsiorik makurrena.

Metaforak zer diren: *Pinotxoren astea* ere luzatu zaigu fakultatean.

Eta egia ala gezurra, bi begien artean sudurra. ●

Euskal baserria, esplotazio sistema?



GORKA MENENDEZ
MILITANTEA, NEKAZARIA
ETA BOTANIKOA

Sanmartinak gure baserrietan oso ezagunak dira, txerria hiltzeko garaia baita. Jende askok, ordea, ez du jakingo antzina San Martin egunak nekazaritza urtearen amaiera ezartzen zuela. Eta hori ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Izan ere, urte amaierarekin etxeko ugazabari urteko errenta ordaindu behar zitzaion. Orduko baserritar langileak nekez helitzen ziren urte amaiera horretara, eta ordainketa beti atzeratzen zen. Azken epea San Tomas egunean amaitzen zen eta orduan jaisten ziren hiriburuetara burges-ugazabei errenta ordaintzera. Horra hor, egungo santomasetako azoka eta festen jatorria.

Hortaz, gaur egun festa giroan ospatzen dugun eguna euskal baserriak zuen esplotaziozko logikaren isla zuzena da. Baina zenbateraino funtzionatzen zuen euskal baserriak esplotazio sistema bezala? Bada, XIX. mendean, Bizkaian lantzen ziren lur guztien artean soilik %36 jabeek zuzenean lantzen zituzten: gainontzeko lur guztia errentan zeuden baserritarrek lantzen zuten. Eta azken

Garaiko burges eta jauntxoek interesek baserritar langileen esplotaziorako sistema bilakatu zuten euskal baserria, XIX. mende amaierarako

horiek urteko ekoizpen guztiaren erdia eta herenaren artean bideratu behar zuten errenta ordaintzera –espeziatan ordaintzen zen-. Dirudienez, baserriaren jatorrian, XV. mende inguruan, ohi-koagoa zen baserritarrak etxeen eta ustiatuegien jabe izatea. Baina kapitalismoaren garapenarekin batera, hirietan haziz zihoan burgesia berria hasi zen landa eremua inbertsiorako aktibo seguru eta errentagarri bezala ikusten.

Baserriak erosi eta errentan jartzea ohi-koa bilakatu zen dirudunen artean.

Gurean asko hitz egin da euskal nekazariaren askatasunaz eta hemen bereizgarria izan den minifundioari buruz. Baserriak zenbait fase bizi izan dituen arren, badirudi XIX. mende amaierarako errealitate minoritarioa zela gure nekazaritza eremuetan. Garaiko burges eta jauntxoek interesek baserritar langileen esplotaziorako sistema bilakatu zuten euskal baserria. Zentzu horretan, badago gurean latifundio hedatu edo sakabanatua existitzen zela defendatzen duenik. Adibide gisa, 1933. urtean Espainiako Bigarren Errepublikan egindako azterketa baten datuak ditugu: Bizkaia eta Gipuzkoan 100 hektarea baino gehiago zituzten 376 jabe aurkitu zituzten, eta horietako bostek 1.000 hektareatik gora zituzten. Jabetza handi horiek sakabanatuta zeuden, hainbat herrietako baserri eta lurretan. Atera kontuak! Euskal herri langilearen historia ez da fabriketako mailu hotsekin hasten, baserrietako aitzur kolpeekin (eta matxinadekin) baizik. ●



HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara...eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupery



LEZO EUSKA RAGA RRI

EUSKARAZ ZARA,
EUSKARAZ GARA

EUSKARA DOAN IKASTEA

Pausoak pauso, oraindik hankamotz

Aldarrikapen historikoa da euskara doan ikasteko eskubidea. Gaur egun, gori-gori dago gaia. Bi urrats esanguratsu eman berri ditu HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak C1 maila gainditu nahi duten gazteentzat eta A1 mailakoentzat. Hala, diru kopuru murrizta ordainduta ikas dezakete EAE-ko ikasleok. Matrikulazio kopuruek na-

barmen egin dute gora neurriei esker. Helduen euskalduntze-alfabetatzearen sektoreak aurrerapausoak txalotu ditu. Alabaina, euskal herritar guztiek euskara doan ikasteko duten eskubidea bermatzeko bide luzea dago egiteko. Hala dio sektoreak. Eta bitartean, ikasleak leihatilaz leihatila dabilta matrikula ordaindu ahal izateko.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  FOKU

Edozein pertsonari euskara doan ikasteko aukera eskaintzeko prozesuari ekitea, pixkanaka, maila guztietan, A1etik C2ra". Eusko Jaurlaritzak legealdiko programan jaso du ekinbide hori. Hasi berri den ikasturterako albiste eman zuen HABEk: A1 maila ikastea "doakoa" izango da 2024-2025 ikasturtean. Lehen adierazpena doitu eta matrikula "merkea" izango dela argitu dute. Ikasleak ohiko matrikularen laurdena ordainduko du. Ikasturte hasieran jarri duen dirua berreskura dezake bi baldintza betez gero: A1 maila gainditzea eta %75eko asistentzia. HABEk A1 mailan pauso hori ematea erabaki du euskaratik urrun daudenak gerturatzeko asmoz, bai urtetan hemen bizi direnak baita etorri berriak ere.

Euskaltegiatiko ikasleen %12 Espainiako Estatutik etorritakoak dira eta %10 inguru estatu horretatik kanpokoak. HABEk dio ez duela nahi dirua oztopo izaterik euskalduntzen ari direnentzat. Jakitun dira ikasle multzo horretan egoera zaugarrian dauden asko egon daitezkeela. Neurriak izan du eragina. Orain arte 4.200 ikasle izan dituzte A1 mailan eta aurreikuspena da 5.000tik gora aritzea aurten euskaltegiatan.

Ez da aurtengo berritasuna, baina bigarren urtea baino ez du C1 maila egiteko 16 eta 18 urte artekoentzako eskaintzak. Doakotasunetik gertuen dagoen eskaintza da: ikasturteko matrikula 20 euro ordaindu behar dute gazteek. Dirua berreskura dezakete bi baldintza hauek betez gero, hau da, asistentzia %75 eta maila bat edo azkerketa ofizia-

la gaindituta. Sustapen ekimena abian jarri baino lehen, 2.700 ikasle inguru ibiltzen ziren, eta gaur egun ia bikoiztu egin da, 5.000 baino gehiago dira.

A1etik B2 mailara denek eta C1ean 16 eta 30 urte artekoek ikasturte hasieran ordaindutako matrikularen kopuru osoa berreskura dezakete, beti ere aurrez aipatu ditugun baldintzak betetzen badituzte. C1ean 30 urtetik gorakoek eta C2ko denek zati bat berreskura dezakete, baldintza berak beteta.

A2 eta C1 mailetan, 16 eta 30 urte arteko ikasleek ikasturte hasieran ordaindutako matrikularen kopuru osoa berreskura dezakete, beti ere aurrez aipatu ditugun baldintzak betetzen badituzte. C1 eta C2 mailetan, aurreratutako diruaren zati bat berreskuratzeko aukera izaten dute, baldintzak betez gero.



Finantzaketa sistema ez dago bateratuta eta ikasleek erakunde bati baino gehiagori egin behar izaten dizkiete eskaerak laguntzak lortzeko.

DOAKOTASUNA ULERTZEKO HAINBAT MODU

Aize Otaño AEKko Nazio Kontseiluko kidea da. Eusko Jaurlaritzak "guk doakotasuna ulertzen dugun moduan" urratsak ematen ari dela iritzi dio, eta horren adibide garbitzat du C1 mailan 16 eta 18 urte arteko gazteentzat aurreko ikas-turtetik egin duen eskaintza. "20 euro baino ez dituzte aurreratzen eta berreskuratu dezakete". Alabaina, 'doan' hitza erabiltzeak gaizki-ulertuak eragin dituela deitoratu du. Ibone Bengoetxea Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburuak A1 maila doakoa izango zela iragarri zuen, eta Otañok dio ondorioak euskaltegian ikusi dituztela: "Jendeak entzun du doan dela eta etorri da. Azaldu diegunean ordua 0,60 euro dela, batzuek, maila ekonomiko ahulekoek, ez dute matrikula egin. Ikasleek eta AEKk berdin ulertzen dugu zer den doakotasuna, ez HABEK irudikatzen duen moduan. Doakoak dirua ez aurreratzea esan nahi du".

Horrela ulertzen du doakotasuna sektoreak: ikasleak dirurik ez aurreratzea; asistentzia %75etik gorakoa; ikasmai-

"Sektoreak baloratzen du udalen ahalegina, baina Eusko Jaurlaritzari dagokio doako zerbitzua eskaintzea"

Aize Otaño, AEK

larik ezinbestean gainditu beharrik ez izatea; doan izatea gutxienez 0 mailatik C1era; 2.000 ikastorduko aurreikuspena (C1 mailara arte ikasleak behar duen denbora kontuan hartuta).

Hala jaso zuen sektoreak 2017an *Doakotasuneranzko bidean* proposamenen. Txosten hartan Nafarroako eta EAEko gobernuak eskatu zieten jarritako helburuak betetzeko hizkuntza politikak egin zituzten. Txostenak dio euskal herritar orok euskara doan ikasteko eskubidea daukela.

2017ko proposamenari 2022an mar-ko teorikoa jarri zioten. *Euskara eza-gutzeko beharra helduengan sustatzeko proposamena* izenburu duen txostenean, besteak beste, Euskal Herri osorako egitura "egonkor eta iraunkor" baten beharra azpimarratu zuten. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea koordinatuko luke eta hauek osatuko lukete: Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa, Euskaltegia eta herri ekimeneko euskaltegiak. Agentzia horren hainbat egitekoen artean legoke herritarrei euskara doan ikasteko zerbitzua eskaintzea.

LABIRINTOAN GALDUTA

Ikasleak leihatila bakarrera joatea eskatzen du Otañok, eta Euskal Herriko agentziak helburu hori lortuko luke. Gaur egun oso ohikoa da, ikasleak diruz lagundua izan nahi badu, bi ate jotzea EAEn. -Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko egoerak koadro banatan azaldu ditugu-. Ate bat HABERena da eta bestea udalarena edo mankomunitatearena. Euskaltegietan, ikasturte hasieran

IPAR EUSKAL HERRIA

Hasiberriak dira kaltetuenak

Ipar Euskal Herrian ez dago euskara ikasteko laguntza berezirik. Handik eta hemendik jasotakoekin moldatu behar izaten dute. Erronka, Nafarroan eta EAEn bezala, finantzamendu koadro bat osatzea da, Ihintz Oliden Ipar Euskal Herriko AEKren koordinatzaileak adierazi digunez. Dirulaguntza le-rrero sendoena Frantziako Estatuak eskaintzen duen formakuntza poltsa da.

Langile orok Prestakuntzarako Kontu Pertsonal bat du eta urtean 500 euro sartzen zaizkio, denbora osoz ari baldin bada. Urtez urte 5.000 euro arteko kopuru maximo bat pilatu dezake kontu horretan. Kontua, izenak dioen bezala, formakuntza profesionalerako erabili behar du langileak. Euskara ikasi nahi dutenek baliabide hori erabili dezakete. Dena den, joan den maiatzetik gobernuak baldintza berria jarri du: kontua kudeatzeko plataformara sartzeko 100 euro ordaindu beharko dira.

Diru-zorroa ez dago edonoren esku, langileentzat (eta langabetuentzat) da; ezin dute baliatu, adibidez, lanik egiten ez duten ikasleek eta pentsiodunek. Badu beste murrizketa handi bat: A2 mailatik gorako ikasleak erabili dezakete, formakuntzarako baita laguntza, eta ulertzen da maila horretatik beherako euskara mailak ez duela balio lanerako. Hau da, euskararik ez dakienak ezin du formakuntza poltsa erabili. Ipar Euskal Herriko euskaltegi guztiak AEK-k kudeatzen ditu eta Olidenek azaldu digu zein murrizt gelitzen den formakuntza zorroa: AEKn, gau-eskoletan, 1.300 ikasle dabilta, eta ikasturte honetan diru-zorroa erabiliko dutenak ehunetik behera izango dira. Olidenek hitzetan esanda: "Gure ikasleen zati handi bat A1 mailan dago eta horiek ezin dute erabili poltsa".

EEP Euskararen Erakunde Publikoak bi beka kudeatzen ditu. Bata da

Euskaraz lan egin. Badira profesionalak euskaraz lan egin dezaten lehen-tasuntzat hartuak diren alorrak, hala nola, irakaskuntza, aisialdia, kultura, eta hedabideak. Horientzat da laguntza. Beka eskuratzeko proiektu profesional bat izan behar da. Bigarren beka *Euskaraz irakatsi* da. Irakasleentzat da, ikastetxe publikoetan ari direnentzat.

Akitania Berria eskualdeak ere baditu laguntzak. Alabaina, ikasleak zuzenean diruz lagundu beharrean, euskaltegiak laguntzen ditu ikas-ibilbideak ordainduta. 0 eta B2 maila arteko ibilbideentzako da.

Erakunde publikoen diruztatzeaz gain, hainbat enpresa pribatuk erabakitzen du bere langileei laguntzea. Herriko etxeek ez dituzte ikasleak diruz laguntzen. Euskal Elkargoak, irailean, herritarrek euskara ikastera bultzatzeko komunikazio kanpaina egiten du.



JON URBE / FOKU

Aize Otaño AEKko Nazio Kontseiluko kidea: "Doakoak dirua ez aurreratzea esan nahi du".

eta bukaeran, ikasleei azalpenak ematen dizkiete, jakin dezaten zein dirulaguntza iturri dauzkaten eta bakoitzak zein baldintza eskatzen dituen.

Batzuetan, ikasgela bereko ikasle bakoitzari berea azaldu behar izaten diete: "Hainbat herritan erroldatutako ikasleak izan ditzakegu eta udalerrri batek bestera aldeak daude. Batzuek ez dute laguntzarik ematen, beste batzuek asistentziaren ehuneko bat eskatzen dute, beste batzuek maila gainditzea exijitzen dute, badira laguntzaren zati bat urtarrilean eta bestea ikasturte amaieran ematen dutenak, batzuk matrikularen %75 itzultzen dute, beste batzuek %90... Bestalde, udalerrri berekoak izanda ere, ikasturte bukaeran azaldu behar diegu zein den haien egoera; azterketa gainditu badute, ez badute, egin duten mailaren arabera... Saltsa izugarria dago". Horiek udalen laguntzak, eta HABErenak beste bide batetik doaz. Askotan, bi iturrietatik edanda, ikasleek matrikularen ia dena berreskura-

tzea lortzen dute. Otañok azaldu digu sektoreak baloratzen duela udalen ahalegina, baina "Eusko Jaurlaritzari dagokio doako zerbitzua eskaintzea".

NON JAIO ZAREN

Ikasle hipotetikoak asmatu ditugu eta hainbat herritako euskaltegietan matrikulatu ditugu. Zenbat ordaindu duten kalkulatu dugu. Nafarroako eta Gipuzkoako adibideak dira, bietan antzeko egoerak bizi baitituzte ikasleek.

Pablok astean zortzi orduko ikastaroa egingo du Altsasun. Ikasturte hasieran, 618 euro ordainduko du matrikula. Asistentzia segurtatzen baldin badu, mankomunitateak 260 euro eman- go dizkio eta Euskarabideak 300 euro. Poltsikotik 58 euro jarri ditu, beraz. Fatimak astean zazpi orduko ikastaroa egitea pentsatu du Lizarran. 573 euro aurreratu ditu. Udalak 194 euro itzuliko dizkio baldin eta asistentzia bermatzen badu, eta Euskarabideak 300 euro. Patrikatik 79 euro, beraz. Axunek astean bost orduko ikastaroan

UEMAren eta HABEren laguntzak bateratzeko beharra

UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen irizpide nagusia da euskalduntze-alfabetatzeak euskal herritarrentzat doakoa izan behar duela, eta UEMAKo herrietan ezinbestean. UEMAn ez dago dirulaguntza sistema bateraturik, UEMAK udal guztietarako proposamena bideratzen badu ere, oraindik udal askotan irizpide propioak erabiltzen dituzte: batzuetan doakoa da, beste batzuetan %80 ordaintzen du udalak, edo %70... Miren Segurola UEMAKo koordinatzailearekin hitz egin dugu eta hark dio egokia litzatekeela irizpide berdinak ezartzea.

UEMAko udalerrietako laguntzak bateratu bai, baina batez ere HABEren dirulaguntza sistema eta UEMAKo osagarri izatea eskatzen dute. Bi erakundeek laguntzen bateragarritasun arazoak areagotu egin dira HABEek doakotasunaren bidean emandako azken pausoetan. Segurolak, labur, horrela azaldu du: HABEek lagundu behar-ko lituzkeen ikasleak udalek laguntzen dituzte, edo bestela, ikasleak dira kaltetuak. Adibide bat: ikasturtea bukatu eta udalak ikasleari laguntza onartu dio, ikastorduen %80 beteta. HABEek dirulaguntza deialdia geroago atera du. Ikasleak laguntza jaso duenez, ez dio eskaririk egingo HABEri.

Segurokaren ustez, helburu nagusia HABEek ikasle guztiei euskara doan ikasteko aukera ematea da. Hala ere, ulertuta bide horretan pausoak ematen ari direla, orain- go egoerari erantzun justuago bat emateko proposamena egin du. UEMAK proposatzen du HABEek laguntzea haien laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleak, eta udalak gainerakoak. Kalkulua horrela egin du: 5.000 biztanletik beherako herrietan jasotako datuen arabera, ikasle- en erdiak ikasturtea gainditzen du, beraz ordainketa erdi eta erdi aterako litzateke gutxi gorabehera. Beraz, udalek laguntza guztiak kudeatuko lituzkete, leihatila bakarra egongo litzateke, eta asistentzia betetzen dutenei eta ikasturtea gainditzen dutenei laguntza emango liekete. Ondoren, HABEek maila gainditu duten ikasleei –maila gainditzea eskatzen du laguntza jasotzeko– dagokien diru kopurua udalei emango die.

NAFARROA

Ikasleen hiru laurdenak ez du laguntzarik eskatu

Nafarroako argazkia ezagutzeko Javier Arakama Euskarabideko zuzendari kudeatzailearengana jo dugu. Hizketan hasi eta berehala adierazi du helduen euskalduntzeaz arduratzen diren elkarte eta entitateen ekosistema "pixka bat konplexua" dela. Euskaltegien sarea bezala, dirulaguntzen sistema bateraturik ez dago. Hasteko, dirulaguntzak ez dituzte jasotzen edozein euskaltegitan ikasten ari direnek. Hezkuntza Departamentuak kudeatzen dituen Zubiarte euskaltegiko eta hizkuntza eskoletako ikasleek ez daukate laguntzak eskatzeko aukerarik. Laguntzak AEK-ko eta IKAko ikasleentzat dira, bi horietako matrikulak beste bietakoak baino arras garestiagoak baitira.

2018an jarri ziren abian AEK-ko eta IKA-ko ikasleentzako laguntzak, 2011-2015eko UPNren agintaldian bertan behera gelditu eta gero. Ikasleek matrikula ordaintzen dute, alegia, dirua aurreratzen dute, eta ikasturtea bukatutakoa, %80ko asistentzia egiaztatuta, jarri duten diruaren %60-65 itzultzen zaie. Arakamak azaldu du ehuneko hori igotzen jarraitzeko asmoa dutela, eta arreta berezia jarri dute A1 mailan: "Igoera orokorrak egiteaz gain, ikusi genuen garrantzitsua dela hasiera erraztea. Hurrengo ikasturtean, ez dakit erabateko doakotasunera iritsiko garen, baina uste dugu hurbil egongo garela. Beste mailetan %75-80ra iristea espero dugu". Ehunekotan gora egiteaz gain, asmoa da beste euskaltegietako ikasleek ere,

hau da, Zubiartekoek eta hizkuntza eskoletakoek ere, laguntzetarako aukera izatea. Zubiarteko matrikula 80-90 euro artean dago eta hizkuntza eskoletakoak 100-130 euro inguruan.

DIFERENTZIAK SAIHESTU NAHIAN

EAEn bezala, Nafarroan ere, hainbat udalek euskara ikasleak diruz laguntzen dituzte. Bi leihatilak, Euskarabidekoa eta udaletakoa, bateragarriak dira. Arakamak adierazi digunez, eremu eukalduneko udal gehienek laguntzen diete ikasleei, eremu mistoko garrantzitsuenera ere bai, eta eremu ez-euskaldunean "hutsune handia" dago. Zulo hori betetzen saiatzen ari da Errigora ekimena. EAEko antzeko joera nabari da Nafarroan ere, lurralde administrazioak matrikularen osoa hartzen ez duenez, udalak saiatzen dira hutsune horiek betetzen. Kontua da udal batzuek hala egiten dutela, eta beste batzuek ez. Ondorioz, udalerriararen arabera, ikasleak dirulaguntza gehiago edo gutxiago izango ditu.

Azaroan euskalduntze eta alfabetatzean ardura duten eragileak biltzekoak dira, udalak tartean, oraingoz behintzat dirulaguntzetan zeresan handia dutelako. Arakama itxaropentsu dago, lantaldea elkartuko dela-eta: "Ikusiko dugu zein norabide hartzen duen, baina interesgarria da elkarrekin zerbait sortzea, orain daukagun anabasa ekiditeko". Udalen ekarpenen eta ekarpen ezen ondorioez aritu da: "Lantalde horretan mahai gainean jarri behar da gaia. Gus-

tatuko litzaiguke erdigunean berdintasuna egotea eta halako diferentziarik ez egotea, edozein herritarrek euskara ikasteko erraztasun guztiak izatea, bai Baztangoak baita Tuterakoak ere".

ASKOK EZ DAKITE LAGUNTZAK DAUDELA ERE

Arakamak dio helburuak "erabateko doakotasunera" heltzea izan behar duela, baina zuhurtziaz dio, espero dutelako gero eta ikasle gehiagok eskatuko dituztela laguntzak. Nafarroa osoan 6.600 euskara ikasle daude. Horietatik 1.100 Euskarabidean ari dira ikasten. Estatu, Foru eta Toki Administrazioetako langileak dira eta dirurik aurreratu gabe, doan, ikasten dute. Multzo hori albo batera utzita, beste 5.500 ikasleak daude. Horietatik 1.300 nafarrek baino ez dute laguntza eskatu. Kopuru oso txikia iritzita, Arakamari horren arrazoiez galdetu diogu. Bi arrazoi nagusi aipatu ditu. Batetik, Zubiarte euskaltegiko eta hizkuntza eskoletako matrikulak eramangarriak direla iritzita, nahiago dute laguntza ez eskatu eta kontu burokratikoak saihestu. Bestetik, orain dela gutxi arte ikasleek ez zekiten laguntzak zeudenik. Eskariek etengabe gora egitea aurreikusten dute: "Eskatzaileen kopurua urtean %20-25 ari da igotzen. Gure helburua hirukoitza da: lehendik jasotzen ari denari gehiago ematea, ikasle izan eta orain arte eskatu ez duenak eskatzea, eta ikasle berriak matrikulatzea lortzea".

Zumaia euskaraz bizitzeko da.





eman du izena eta 439 euro aurreratu ditu Pirinioetako eskualdean. Agoitzeko Udalak %40 finantzatuko dio ikasturte bukaeran asistentzia bete badu, eta Euskarabideak 200 euro. Poltsikotik 63,4 euro ordaindu du. Andreik ordu kopuru bereko ikastaroa hasi du Tuteran eta Axunen matrikula prezio bera ordaindu du, 439 euro. Euskarabideak 200 euro itzuliko dizkio asistentzia segurtatuz gero, eta Errigora ekimenak 119,5 euro emango dizkio. Errigorak Nafarroa hegoaldeko elikagaiak otarretan salduz, eremu bereko euskalgintzari zuzeneko ekarpen ekonomikoa egiten dio. Andreik patrikatik 119,5 euro jarri behar izan ditu, Axunek baino 56 euro gehiago.

Gipuzkoan, Irungo eta Errenteriako adibideak hartu ditugu. Bietan astean sei

C1 maila 16 eta 18 urte artekoentzat 20 eurotan jarrita, ikasle kopurua 2.700etik 5.000ra igaro da

orduko ikastaroa, eta matrikula bera: 449 euro. Errenteriako Udalak matrikularen %80 itzultzen du baldin eta %85eko asistentzia eta aprobetxamendu ona badu. Langabetuek ez dute dirurik aurreratzen. HABEk, maila edo azterketa gaudituz gero, ehuneko ehun finantzatuko dio,

A1etik B2rako mailetan. C1ean, berriz, %20 itzuliko diote azterketa gaudituz gero. Irungo Udalak, berriz, % ehun ordaintzen du ikasturte amaieran, baldin eta Irunen erroldatuta badago, %85eko asistentzia izan badu eta azpimaila bat gaudituz gero. HABEren laguntzak Errenteriako berberak dira Irunen.

Adibide horietan ikusten da ikasle batzuek lortzen dutela hamarnaka euro batzuk baino ez ordainduta ikastea. Alabaina, beti dirua aurreratuta. Batere aurreratu gabe ikasten dutenak administrazio langileak dira, udalerrri jakin batzuetako ikasleak –udalaren laguntzari esker– eta egoera zaurgarrian daudenentzako bekak eskuratzen dituzten herritarrek. C1 mailako 16-18 urte artekoak ere ia doan ari dira, 20 euroren truke. ●

AZAROAK 30; BERTSO BAZKARIA,
Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina.

ABENDUAK 1; 12:00etan hasita, TALO TAILERRA Goialde jubilatuko elkartearen eskutik. Eta ZURESKU EGURREZKO JOLAS TRADIZIONALAK, jolasteko beste modu bat!



Zorionez haurrek ez dute heldurik euren barnean; errealitatera jaitsita leudeke bestela

Koldo Rabadan Izagirre

Superbotereak liburuaren egilea

Egunik goibelenetan ere, Larraulgo (Gipuzkoa) eskolako atea ireki orduko irauli egiten da aldartea. Haurreskolako haurrengandik gertu, metro eskasera dago liburutegi-txokoa. Ordenagailuaren parean topatu dugu neskato bat, entzungailuak jantzita, arkatzez idazten eta koadernoari begira. *Stop, backward* eta *play*, sarri-sarri. Euskarazko kantu bat ari da transkribatzen. Orduantxe agertu da Koldo Rabadan, eskaileretan behera, liburu berria besapean: *Superbotereak. 10 urrats eskola eraldatze bidean* (ARGIA, 2024). Ilusioa berpiztu dugu segundo eskasean bi bider.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Lehen liburua zenuen *Bidean*-etik, orain *Superbotereak*-era.

Liburu-segida bat dela esango zenuke? Ala oso diferenteak dira?

Bietatik pixka bat. Errezeta liburu bat egitera nindoan berez, baina denborak egin du, nahi gabe, asmoz aldatu eta aurrekoaren segida tonua hartzea. Eta orain pentsatzen dut horrela izan behar zuela, *Bidean*-en osagarri. Irakasle lagun batek [dagoeneko liburua irakurri duenetako batek] esan dit batak bestea elikatzen duela, eta ados nago. Azkenean, *Bidean*-ek proposatzen duena da hausnarketa prozesu bat abiatzea, printzipio batzuen inguruko eztabaida sustatzea;



eta bigarren liburuak, *Superbotereak*-ek, praktikotasun batetik heldu nahi dio gaiari. Azken horrek ironia eta umore gehiago dauka, eta praktikora jotzen dugu gehiago. Baina ez du esan nahi instrukzio liburu bat denik, ezta gutxiago ere. Pista batzuk eman ditzake, ordea.

***Bidean*-en eskatzen zenion lidergoa hartzeko irakurle zen irakasleari. Bigarren honetan zer da eskatzen duzuna?**

Lidergoa partekatzeko, ez baitago lider bakar bat. Badaude lider pedagogikoak, lider administratiboak, umorean lider direnak, sentiberatasunean... Denen ekarpenetatik etorriko da proiektua. Eta, gero, eskatuko nuke abiatzeko eskola-proiektu bat, eta ilusioz heltzeko, eusteko. Eta kutsatzeko, ilusioa kutsakorra baita. Ilusio hori zabaldu dadila eskoletan, klaustroetan eta hezkuntza-komunitateetan.

Hitzaldi eta mintegi ugari eman dituzu azken urteotan, asko *Bidean* liburuaren aitzakian. Ziur sortuko zirela kezka batzuk partehartzaileen artean. Galdetuko zizuten *nola* egin planteatzen duzuna.

Hori izan da liburua idaztera bultzatu nauen lehen arrazoia. Baina ez nator erantzun zehatz eta definitibo bat ematera. Guk, hemen, Larraulgo eskolan,

modu bat bilatu dugu *nola* horri erantzuteko, baina horrek ez du esan nahi gurea beste eskoletan erabilgarria denik. Finen, haur bakoitza da metodoa, eta haur batekin balio duenak bestearekin ez du balio. Lan egiteko modu batzuk badaude oinarrian, hala uste dut, eta galderari erantzuten saiatu naiz liburuan, modu orokorrean. Baina esandakoa: formula ezin da errepikatu. Norberak bilatu behar du berea. Uste dut irakasle oren lana dela *nola* galderari erantzun nahi izatea.

Bigarren arrazoi bat ere egon da liburua idazteko, eta agian horregatik ere egin nahi nuen barre. Hala eraldatzen ari garen eskolok, pauso sakonak edo ia drastikoak eman ditugunok eta aldatu garenok, batzuetan epaituak sentitzen gara. Ni neroni sarri sentitu naiz horrela, etengabe justifikatu beharrean bezalaxe. "Zuenean erraza da", "oso eskola txikie-



tan soilik balio du", "eta gero zer?", "maila emango al dute?"... Nekeza zait.

Gutxiespen sentsazioa?

Bai... Eta honekin [liburua seinalatu du] erantzun nahi dut ezetz. Onartutako eta probatutako kontua dela, ondo bideratutakoa, balekoa, kontrastatua, ja urte

batzuk badirela horrela gabiltzala. Liburu hau bada "posible da!" aldarrikatzeko modua.

Ez dagoela errezeta magikorik diozu, haur eta eskola bakoitzak behar duelako bere metodologia propioa. Baina eman zertzelada batzuk: nondik hasiko ginatke eraikitzen?

Liburuan diot etxea teilatutik hasteko. Oso ponposo geratu daitekeen arren, uste dut horrelaxe dela: amestu, pentsatu nolako eskola eraiki nahiko zenukeen, nola lan egin nahiko zenukeen... Zeren ondoren errealitateak kimatuko du proiektua, eta jaitziko zaitu lurrera, errealitateak egingo du proiektua lurtar. Baina hasi teilatutik eraikitzen, baikortasunez eta irribarrez.

Izena jartzea, lehenbiziko lana.

Hori da lehen urratsa, bai. Gurean horrela gertatu zelako, e. Larraulgo eskolan, aldaketa ez zen erabaki bat izan zuritik beltzera; bageneraman prozesu bat, oso natural garatu zena. Baina gakoa izan zen izena jartzea proiektuari, nahiz orduko hartan ezer erredaktatuta ez zegoen, ezta eraikia ere. Izena ipintzeak ilusioa eragin zuen gudan, eta gogoz eutsi genion.

Erredaktatu zenutena eskola-proiektua izango zen, hezkuntza-proiektua baino gehiago. Bi kontzeptuak argi bereizten dituzu liburuan.

Berdinak izan daitezke zenbait kasutan, baina nik desberdinu egiten ditut, eta ez dut bata bestea baino garrantzitsuagoztat jotzen. Hezkuntza-proiektua izango da, segur aski, eskola batean dagoen dokumenturik garrantzitsuena. Baina diferentziatzeko esango nuke oraina dela hezkuntza-proiektua, orain eta hemen egiten ari garena jasotzen duen dokumentua, eta eskola-proiektua izan daiteke etorkizunerako zerbaite, proiektu, ilusio edo norabide bat. Eskola-proiektu gisa ulertzen dut nik eskola osoarentzat den proiektua, hasi haurtzaindegitik eta ikasle zaharrenean.

Askotan aipatzen den horma da curriculum. Mugak ipintzen dituela-eta, irakasle eta hezkuntza komunitatearen kezka eta kexarako motibo da sarri. Liburuan ez duzu gehiegi sakontzen horretan, baina bai aipatzen duzu.

Adibide argigarri bat: hemen, gure bailaran, hainbat eta hainbat eskola eta ikas-tetxe daude, eta ziur nago denok dugula



Entresakei eranskinak

Superbotereak liburutik ateratako lau esan,
Koldo Rabadan Izagirrerena

Hainbat esaldiri egin diet azpimarra. Lau ekarriko ditugu hona, eta egin ariketa, erantzun zeure buruari. Lehenak dio: “Gogorak izan dira azken ikasturteak eta klaustroak nekaturik sumatu ditut. Ulegarria. Baina klaustroak ezkor ere sumatu ditut. Kezkagarria. Izan daiteke anemia puntu bat, zenbait kasutan antsietatea, ilusio falta edota depresioa, kasu askotan presioa. Baina guztiak du konponbidea, eta sinergia da gakoa”.

Elkarlanean dago gakoa, ilusioan, ahal-duntzean. Eta zergatik ez, irri egitean. Oro har, kanpora gutxiago begiratu eta barrura gehiago. Eraldaketa barrutik egiten da.

Mintegietan sarri erabili dut *Barruko lehoia*-ren kontakizuna. Gauzak aldatu nahi badituzu, lehenik aldatu behar duzu zure burua. Hau da, aldatu dezagun gure kezka, presioa, eta ilusioa gaitzen.

“Kanpo aholkularitzak ongietorriak dira, baina eskola eraldatzearen ardura gu guztiona da (...) haur eta ikasleengandik gertu gaudenongandik

etorriko da berrikuntza, gaixotasun bat sendatzeko errezeta parez pare dugun mediku batek jarriko digun moduan”.

Lidergoaz hitz egin dugu, eta hortik doa. Gehien dakiena, eskola gehien ezagutzen duena, bertako hezitzaile eta irakaslea da. Hartu erabakiak klaustroan. Hartu erabakiak eta ez itxaron, batzuetan ere ez eskatu baimenik. Erabakiak gureak dira eta ausartu behar dugu hartzera. Liburuan ageri den superbotereetako bat zera da: lehenetsi.

Guk eskolan bereizten dugu zer den betelana eta zer beharrezko lana. Bete-lanari erantzun betelanarekin, eta beharrezko lanari erantzun ilusioz.

“Haztea ez da gehiago egitea, hobeto egitea baizik”.

Egiten dugu gehiago, gehiago eta gehiago, hango eskolan ikusiko dugulako hau, eta hemengoan bestea. Azkenean, gal-tzen dugu nortasuna. Horregatik, barrutik eraikitzea garrantzitsua da. Ongietorriak dira besteen esperientziak, baina eskola-proiektu bat erredaktatzen badugu, nortasunez erredaktatu behar



dugu, eta eduki behar dugu kontutan zer nolako eskola den, zer nolako hezkuntza komunitatea den, nolako ikasleak ditugun, zein ingurutan bizi garen... eta, horren arabera, nortasunez eraiki proiektua.

Eusko Ikaskuntzarako idatzi zenuen eranskin batekin ixten da liburua. “Kulturak salbatuko gaitu”, horixe da titularra.

Amaiera polita iruditu zitzaidan. Ezer baino lexhen, kapitulu bakoitzaren amaieran badagoelako kulturari halako keinu bat. Baina, oro har, *Bidean*-en emaitzetako bat izan zen Eusko Ikaskuntzak eskatu zidala galdera bati erantzuteko, ea nolakoa izan behar zuen egungo hezkuntza-sistemak. Pandemia garaian ezagun egin zen esaldi horrekin erantzun nion nik.

Zerorrek ikusi duzu elkarrizketa egiten hasi aurretik, liburutegiko tailerrean nola ari zen zazpi urteko haur bat Izaroren kantu bat transkribatzen, inork hala eskatu gabe. Funtsean, hezkuntza-sistema batek, curriculum batek, oinarri-oinarrian bertako kultura izan behar du presente: hizkuntza, ezaugarriak eta nortasuna, eta horiekin egin behar du aurrera.



oinarrian curriculuma, eta denok esango dugu curriculumarekin egiten dugula lan. Eta, aldiz, oso eskola diferenteak aurkitu ahalko dituzu. Zer esanik ez bailara honetatik aterata. Orduan, bietako bat: edo baten batzuk engainatzen ari gara, edo curriculuma malgua da eta interpretatu daiteke. Nik bigarren horren aldeko apustua egiten dut. Ez dut pentsatzen inor gezurretan ari denik, baizik eta modu differentetan uler daitekeela, eta bakoitzak ematen diola bere zentzua, bere aberastasuna. Ez dut egin nahi curriculumaren defentsarik, baina bai uste dut malgua dela. Are gehiago, bere xedapen orokorretan esaten du eskola bakoitzak autonomia osoa daukala curriculuma aberasteko; guk hori egiten dugu, horrela ulertzen dugu.

Bidean liburuari izena eman zion Larraulgo zuen eskolako eskola-proiektuak. Orain, Superbotereak. Badirudi haurrari eman diozula foku gehiago. Zera nabarmentzen duzu: helduek haur bat daramatela barnean, eta haurrek ez dutela heldurik... zorionez!

Haurrek heldu bat eramango balute barruan, jada errealitatera jaitsiko lirateke. Lehen, proiektu batekin amesteko esan dugunean, horixe da haurrek egiten dutena. Gero, helduaroan sartu ahala, errealitatera jaisten gara eta gutxiago amesten dugu, gutxiago eraikitzen dugu, askoz ere apurtzaileagoak gara. Hortik doa ideia. Saiatu naiz haur ginenean geneuzkan superbotere batzuk identifikatzen, pista moduan erabiltzeko guk gure eskoletan. Superbotere gehiago ere izan daitezke, beste hamarnaka, hamaika.

Sarreretako batek [hiru ditu] ematen dio gorputza liburuan superbotereak nabarmentzeko erabakiari. Lagun baten mezua dago tartean. Bere



Mahai-ingurua

Azaroaren 27an, ARGIAk antolatuta, liburuaren aitzakiapean solastatzeko mahai-ingurua egingo da Larraulgo eskolan, 17:30ean.

Superbotereak liburuaren izango da abiapuntua, baina oro har hezkuntza eta eskola-proiektuak hartuko ditugu hizketagai.

Koldo Rabadan, liburuaren egilea eta irakaslea.

Nora Salbotx, hitzaurrearen egilea eta irakaslea.

Ainhoa Azpirotz, *Hik Hasi*-ko koordinatzailea.

Irati Manzidor, Euskadiko Eskola Txikietako koordinatzailea.

Maitane Telletxea, Zizurkilgo Mendigain eskolako zuzendaria.

seme-alabari "gabeziak" ikusi dizkiotela eskolan, oso jatorra dela azpimarratzearekin batera.

Azken horrek orekatuko balu bezala... Sarrerako testua idazten amaitzen ari nintzenean jaso nuen lagunaren mezua, eta gidoia guztiz irauli zuen. Une horretara arte asmoa nuen errezeta liburua idazteko, eta planteamendua idatzita neukan. Bada, egindako sarrerako testua pikutara bota beharrean, erabaki nuen hor uztea, akatsa ere agerian jartzeko, ikus dadin zein zen nire inertzia. Bigarren sarrera ere ez zen ongi atera. Hirugarrenean bai, pozik geratu nintzen. Benetan inertzia desaktibatuta eta ikasleen superbotereak ikusarazi behar ditugula argi ikusi nuen.

Gabeziak, helduok ez bagenitu bezalaxe.

Begirada kontua da. Segun eta nola begiratzun, gabeziak superbotere gisa ere ikusi daitezke. Markatua daukagu ikasle estereotipatu bat, eta orduan, horretara heltze bidean, gabeziak azaleratzen dizkiogu. Eta gabeziak ikusi behar dira, guztiok baititugu. Are gehiago, interesantea da ditugun gabezien jakitun izatea. Baina baita ikasleek dituzten eta norberak dituen superbotere horien jabe izatea ere. Horregatik aldarrikatzen dut aldaketa bat eskoletan; hau da, ikasle bakoitzak bere superboterea garatzeko eskolak sortu behar ditugula. Begirada aldaketa: zentratzea, edo hori behatzea gehiago.

Gure eskolan ditugun tailer edo gune askotan nire gabeziak azaleratzen dira; beste batzuetan nire indarguneak identifikatzen ditut. Eta haurrek ere berdin. Aurreko liburuan ere aipatzen nuen: haurrak dira, ez dira inozoak. Baina hori ona da, eta norberak identifikatzen duenean zein gabezia dituen eta zein indargune, ikaskidea gutxiago eapatzen du. ●

365 egunez

euskaraz
bizi

nahi dut

“ ”

Petrok lau urtetan ez du konponduko Kolonbiako problematika, baina hobetzeko esperantza daukagu

Karina Renteria

Giza eskubideen aldeko ekintzaile kolonbiarra

Zure komunitatean harrapatuta, gainerako herritarrengandik isolatuta. Talde armatuen tiro eta indarkeriaren erdian, lurra eta elikagaiak lantzeko ere etxetik atera ezinik. Halaxe deskribatu du Kolonbiako Chocó departamenduko bizimodua bertako ekintzaile Karina Renteriak, Euskal Herrira egindako bisitan. Komite Internazionalistak antolatuta, Kolonbiako

lurraldeek sufritzen dituzten giza eskubideen urraketak ikusaraztera etorri da. “Gobernuaren eta FARCCen bake akordioen ostean egoera okertu egin da”. Ohartarazi duenez, Gustavo Petro ezkertiarra agintera iritsi denetik ere kasikartu dira komunitateetako bizi baldintzak, halere, ez dute aldaketarako esperantzarik galdu, agintaldi erdia falta zaion honetan.

 LEIRE ARTOLA ARIN  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Hain dira muturrekoak bortxa eta errepresioa, boterearen aurka ahotsa altxatzen dutenek euren buruak babestu behar dituztela, mehatxupearan baitaude. Aldizkaria papelean irakurtzen ari denak soilik izango du Renteriarene benetako izenaren eta irudiaren berri; segurtasunagatik, Interneten ezin du aurpegirik eman. 32 urteko ekintzaileak bizi osoa darama giza eskubideen aldeko borrokan antolatuta, eta deskribatu digunez, Pazifikoko eskualdean dagoen Chocó departamenduko komunitatetan bizitzea “oso konplexua” da: “Larritasunez bizi gara egunero, Chocón etengabe daude liskarrak. Paramilitarrak oso indartsu daude han, eta komunitateak beti gaude gatazken erdian. Hirigunetik urrun gaude

eta askok oinarrizko beharrak ere ez dituzte aseta, elektrizitatea eta komunikazioari lotutakoak. Konfinamenduen eta geldialdi armatuen biktima gara, eta familiak eta komunitateak gatibu daude euren lurralde barruan. Jendeak ezin ditu eguneroko jarduerak askatasunez egin, hala nola landara lanera irtetea, uzta biltzera, arrantzara... ibiltzea ere eragozten diete”.

2016an Bake Akordioak sinatu zituzten gobernuak eta FARCC gerrillak, baina Renteriak argi du herrialdeak ez duela bakerik izan, nahiz eta bake prozesuek espektatibak sortzen dizkien: “Batik bat jende xumeak, pobreak, historikoki indarkeriak gehien astindu dituenak, itxaropena dugu bake prozesuetan; komunitateetan lasaitasuna nahi dugulako”.

Uste zuten amaituko zirela hilketak eta gazteen errekrutatzeak, baina aurka-koa izan da: “FARCCek lurralde handia zuten beren mende, eta albora egin zutenean, lur horiek libre geratu ziren eta paramilitarrek hartu zituzten; gainera, FARCCen disidentzia batzuk ere geratu ziren”. Indar armatuetatik aske geratu zirela uste zutenean, beste talde armatu batzuk heldu ziren, “herritarrak erreprimitzera, indartsuago eta estatuaren beraren babesarekin”. Sarraskiek ez dute etenik izan, eta pertsona eta komunitateen behartutako desplazamenduak eguneroko ogia dira.

Renteriak txikitatik jasan du errepresioa, eta haren familia ere paramilitarren biktima izan da. Baina ziurtatu du orain molde aldaketa sumatu dutela, alegia,



legez kanpoko talde armatuek aurpegi zuriketa egin nahi izan dutela. Besteak beste, errekonozimendu politikoa bilatu dute, bake elkarrizketetan parte hartuta. “Lehen indarkeria gehiegi erabiltzen zuten, eta orain saiatzen ari dira alde sozialetik sartzan, jendearen beharrek in jokatzan”. Orain, komunitateetara sartzan dira esanez estatuak asetzen ez dituen beharrak ematera doazela, eta Renteriaren esanetan “kezkarria” da jokaldia, funtzionatu egiten baitu estrategia aldaketak. Paramilitarrak “erraldoi” egiten ari direla dio: “Gosez eta premiaz dagoen herri batera iristen bada norbait irtenbide apur bat eskaintzera, erraz bereganatuko du”. Paramilitarren mezu aldaketa “drastikoa” izan da kolonbiarren begietan: “Balizko inbertsio sozialen politikak erabiltzen dituzte, argudiatuta herritarren zerbitzura daudela eta ez direla lehen bezalakoak”. Ekintzailearen esanetan, ordea, “berberak dira, baina izen desberdinekin”.

Gazteen egoerak kezkatzen du gehien, paramilitarren eskuetan erortzen baitira asko. “Herrietatik desagertzen dira gazte asko eta asko, eta hilabeteen buruan jabetzen zara paramilitarren ilare-

“ ”

Paramilitarrek lehen indarkeria gehiegi erabiltzen zuten, eta orain saiatzen ari dira alde sozialetik sartzan, jendearen beharrek in jokatzan

tan daudela”. Zeren ondorioz? Gazteen etorkizunerako aukerarik ezaz aprobeztatzen direla dio. “Kolonbiako departamendu gehienetan aukerak oso eskasak dira, eta ikastea eta lan egitea zaila da. Paramilitarrek gazteei soldata eskaintzen diete, haien esanetan lan duin baten truke. Baina errealitatea da lan hori ez dela legezkoa eta ez duzula zure komunitatearentzat egiten. Kontrara, kanoibazka zara borroketan edota beste talde armatuen aurkako gatazketan”.

EZKERRAREN GOBERNUA, HANKAMOTZ

Nola irauli indarkeriazko egoera hori?

Hainbatek Gustavo Petro egungo presidentearengan jarri zuten konfiantza, 2022ko hauteskundeetan ezkerreko gobernu bat agintera iristeak haize eta bultzada berriak ekarri baitzituen Kolonbiara. “Esperantza da galtzen den azkena”, irribarez dio Renteriak, baina agintaldi erdira iritsita, ez da baikorra Petroren aldaketarako ahalmenarekin. “Argi dugu Petrok lau urtetan ez duela konponduko Kolonbiako problematika”. Halere, sinesten dute presidentearengan, “herriaren gobernu delako”, hamarkadetan Kolonbiako eskuinak gobernatu ostean.

Mugimendu sozialek eta nekazariak, esaterako, lorpen gisa hartu dute Petrok aitortu izana Tecam lurraldeak. Kolonbian lurralde antolakuntzako figura garrantzitsua dira Tecamak, eta autodeterminazioaren, elikadura-burujabetzaren eta ekosistemen babesaren bidez hamar milioi hektareatan gobernantza indartzea bilatzen dute nekazarien lurralde horietan. Kolonbiako Gobernuak aitortza eman die, “baina ez da nahikoa” ekintzailearen iritziz. “Zer egingo dugu lurrarekin, etengabeko gatazkan jarraitzen badugu eta lurralde horietan ezin



REDHER

Uztail eta abuztuko karabana humanitarioa goraiatu du Renteriak: "Borroka armatuak gogorren kolpatutako komunitateetara sartu ginen, euren beharrak entzutera eta akonpainamendua egitera".

badugu egon? Lur horren jabetzaz gain, han bizitzeko segurtasuna behar dugu; lasai bizi nahi dugu, lurra landu, duela urte mordoia egiten zuten bezala. Lorpen handia da aitortza, baina gobernu honek gehiago egin behar du komunitateentzat, hobetzeko saiakera egin, behintzat". Renteriak ezkerreko gobernu honi eskatzen dio bitartekari lanak egiteko liskarrak gutxitu daitezkeen komunitateetan.

Chocóko ekintzaileak onartu du hainbat departamendutan egoera 2022 aurretik baino makurragoa dela. "Baina amesten dugu datozen bi urteetan aldutuko dela, behar handiena duen jendearen mesedetan". Ordea, boteredunen sarea konplexuagoa eta zabalagoa da, eta "gobernuan dagoenak ez du indar guztia". Petrok neurri zorrotzagoak hartuz gero hobetuko litzateke kolonbiarren bizimodua? "Agian bai, baina horrek ez du ezer bermatuko. Badakigu parean izango dituela beste batzuk saiatuko direnak egoerak okerrera egin dezala, euren interesak tarteko, eta konfrontazioa egongo da. Horrela ere, komunitateak liskarraren erdian egongo lirarteke".

Gobernuaz gain, departamenduetako agintariek ere badute zeresana: "Alkate

eta gobernadore horiek estatuaren beste parasito bat dira, eta lurraldeak hain pobretuta izatearen erantzule ere bai, besteren artean, komunitateetan ez dutelako ia inbertitzen". Konponbide "oso zaila" duela eta errotik aldatu behar dela dio. "Paramilitarismoa erabiltzen jarraitzen dute historikoki agindu dutenek, eta oraindik boterea dutenek. Eurak dira paramilitarrik babesten eta finantzatzen dituztenak. Petrok pertsona gehiago bere alde ez duen bitartean, herrien eta komunitateen onurarako lanean, oso zaila izango da".

ALDATZEKO LEHEN PAUSOA, ARAZOA IKUSARAZTEA

Karina Renteriak garbi du ezinbestekoa dela behartutako isolamendutik atera eta errealitatea ikusaraztea, baita herritarrak antolatzea ere. Ikusgarritasuna du erreminta nagusitzat: "Badakigulako komunitatean gertatzen dena komunitatean geratzen denean, ez digula inork laguntzen". Nazioarteko erakundeei dei egin die Kolonbiako gatazkari ahotsa ematera, eta goraiatu du Euskal Herriko 11 eragile sozial eta sindikalen babes izan zuen *Biziaren, Bakearen eta Lurraldean Geratzearen aldeko Karaba-*

na Humanitarioa. Uztaila eta abuztuan "inoizko karabana humanitario handiena eta luzeena" egin zuten Arauca, Bolívar Hegoaldea, Chocó, Kolonbiako hegomendebaldea eta Antioquiako ekialdean zehar, hango eta nazioarteko eragile ugariaren parte hartzearekin.

Helburuak bete zituztela ziurtatu du: "Borroka armatuak gogorren kolpatutako komunitateetara sartu ginen, euren beharrak entzutera eta akonpainamendua egitera. Oso zaila da toki horietara sarbidea izatea, eta karabanak ahalbidetu zigun hori. Gainera, Chocón, adibidez, osasun brigada bat ere egin genuen; izugarriko beharra zuten herritarrek, eta karabanari esker apur bat arindu genuen gabezia hori". Baina karabanaren azken xedea zera da: lurralde horietan guztietan dauzkaten beharrak eta atzemandako eskubide urraketak bildu eta txosten bat osatzea, gobernuari helarazteko. "Eurak baitira egoera horren erantzule nagusietako bat, ikusi dugu orain arte emandako laguntza ia ezereza izan dela". Txosten horietan bildutako informazioa helduleku garrantzitsua da eskaerak egiteko eta ikusezina denari izena jartzeko.

ERRESISTENTZIA, BELDURRAREN GAINETIK

Renteriak azpimarratu du baloratzekoa dela muturreko egoeran egonda ere jendeak segitzen duela lurraldean, erresistentzian. “Antolatzea hautatu dute lurralde askotan, talde armatuen txo-txongilo ez izatea”. Estatuko instituzioen laguntzarik ez dutela ikusita, “eurak izanik komunitateen ongizatea zaindu behar dutenak”, ikusi dute soluzio bakarra dela euren artean antolatzea, eta egitura sendoak sortu dituzte.

Azaldu digu egitura garrantzitsua direla zaintzaz arduratzen direnak: guardia indigena, nekazarien guardia, etnia arteko guardia... Eta orain emakumeen guardia sortzeko bidean daude, “emakumeak baitira gatazkaren eraginik handienak jasaten dituztenak”, eta komunitateen arteko emakumeekin koordinatzeko asmoa dute. “Guardiak dira zaintzarako eta gure babeserako ditugun mekanismorik inportanteena. Bizitza eta familia babesten ditugu, eta laguntzen digu lurraldean geratzen”.

Gatazkaren konplexutasuna azaltzeko beste gakoetako bat zera da: kolpatutako lurralde asko puntu estrategikoak dira, bai narkotrafikorako pasabideak direla-



ko, bai biodibertsitate aberatsa dutelako eta estraktibismotik dirutza lor daitekeelako. “Jendea kontzientzia hartzen ari da gure lurraldeetan dugunaz, eta badakigu Kolonbiako eliteak horregatik bota nahi gaituela. Konturatzen zarenean besteek zer kendu nahi dizuten, indar handiagoz aldarrikatzen duzu hori zurea dela, eta bertan geratzeko erresistentzia handiagoa egiten duzu”.

Renteriak zehaztu duenez, gero eta herritar gehiago daude antolatuta, beldurtuta bizitzeaz nekatu direlako. “Ohar-tu gara beldurrez bizitzen ez dugula ezer lortu, soilik hanka egitea eta bidea libre uztea zeurea dena hartu nahi duen horri”. Chocón jaio zenetik erresistentzian dabilen ekintzaileak nabarmendu du boteretsuei ez diela beti funtzionatzen beldurraren estrategiak. ●



**Euskara neu naiz,
geu gara**

ARGIA KIDEAK



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Ezin kitatuzko zorra

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Nola eskertu daiteke berrogeita hamar urte baino gehiagoan emandako babes? Ez dira bat eta bi, 323 familia dira ARGIA sustengatu dutenak mende erdiz harpidetza moduan. Zuri-beltzeko 1919 urrun batean sortutako *Zeruko Argia*-k bizirik dirau, besteak beste, “bizi guztiko” lagun hauei esker, eta nola itzuli emandako guztia? Horri bueltaka aritu da ARGIAko lantaldea azken urteetan, formula topatu duten arte.

Artelan berezi bana bidali zaio baikoitzari, Baztango Azpilikueta herrian bizi den Ines Alba artistak sortutako lamina bat. Hala dio bere azalpenean: “Lamina irudi bat eta bide luze bat da,aldi berean. Eginiko bidearen ospakizuna, eta hurrengorako, ereite bat. Lurrarekin egin dut lan, sostengatzen

gaituzten erroekin. (...) Abstrakzioa eta sentsazioak bilatu ditut irudia sortzean, eta espero dut irudi partekatu honekin, lurra eta sustraiak zuekin izango dituzuela; 50 urteotan ARGIAren ondoan egin duzuen bezala, txikitik eragiten jarraitzeko”.

323 harpidedun hauen etxeetara bidali da lamina bana, ARGIAko lantaldearen eskutitz batekin. “Zortedunak eta zorretan sentitzen gara zuekin”, diote momentu batean, hedabidearen 106 urteotan –ez dira asko mende pasako ibilbidea dutela esan dezaketen hedabideak, ez Euskal Herrian, ezta nazioartean ere–, momentu on eta txarretan, ondoan bidelagun, militante izan dituzten harpidedun hauei eskertza eginez. Badira gurasoek hasitako sustenguari jarraipena eman eta lekukoa seme-ala-

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

““

“Kalitatezko euskal edukiak izaten jarraitzeko eta munduari ikuspegi kritikotik begiratzeko”.

Azkoitik Ionek

“Telegrametik asko jarraitzen dudalako, nire informazio iturri handiena delako eta garrantzitsuena: ez dagoelako ekonomikoki enpresen menpe”.

Bergararik Gorkak


“Jaberik gabeko kazetaritza, kazetaritza librea delako”.

Urretxutik Davidek

bek hartutako familiak; eta “hori izugarri pozgarria da guretzat”, azaldu du lantaldeak.

Nahi dugun iturritik edaten dugula sinistaraziz testuingururik gabeko milaka titularrez bombardatzen gaituen kazetaritza eredutik alden du nahi duenik oraindik ere bada eta ARGIAk eskerrak eman nahi dizkie euskarari eta kazetaritza independenteari arnasa ematen dietenei. Aurten berrogeita hamar urte-tik gorako harpidedun guztiek jaso dute lamina etxean, baina hemendik aurrera urtero-urtero berrogeita hamar urteko langa pasatzen dutenei bidaltzeko asmoa dute. Albiste asko eta informazio gutxiko garaiotan, ospa dezagun bagarela nor, hemen badela euskaraz bizi nahi duen herri bat eta bizitzen jarraituko dugula. ●

Lucy: izar mediatikoak 50 urte



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Etiopia, 1974ko azaroaren 24a. Lucy-ren hezurdura aurkitu zuten Hadarren, giza arbasoen arrasto zaharrenetakoa. *Australopithecus afarensis* espezieko hominidoak 3,2 eta 3,5 milioi urteren artean ditu.

Homo espezieen arbasotzat jo zuten orduan, gu guztion amatzat. Mende erdi honetan *Australopithecus afarensis* espezieko 400 arrastotik gora aurkitu dituzte. Horiei eta Lucyri egindako azterketei esker, orain askoz gehiago dakigu espeziearen ezaugarriei buruz. Baina oraindik galdera asko daude erantzun gabe, Lucy hominidoa ote zen zalantzan jartzen dutenak: espezie hura tresnak egin eta erabiltzeko gai zen?

Eta 50 urteotan lehia ere iritsi zaio Lucyri. Beste espezie zaharrago batzuk aurkitu dituzte: *Ardipithecus ramidus*, *Ardipithecus kadabba*, *Orrorin tugenensis* eta *Sahelanthropus tchadensis*. Lucy 3 milioi urtetako muga gainditzen lehena izan zen; espezie horiekin, ordea, 6-7 milioi urteko mugara iritsiko ginatke. Jakina, askoz zailagoa da espezie horiek hominidoak ziren baieztatzea.

Eta Lucyren konpetentzia handiena beste espezie garaikide batzuk dira. "Garai beretsuan beste espezie asko dauzkagu", dio Yohannes Haile-Selassie, Arizonako Estatu Unibertsitateko Giza Jatorrien Institutuko (IHO) zuzendariak. "Giza familiak zuhaixka itxura handiagoa zuen bonsai batena baino; kimu asko zituen elkarren parean hazten, enbor bakarra izan ordez".



Esaterako, 1999an, Turkana lakuaren ertzean, *Kenyanthropus platyops* espezieko garezurra topatu zuten, 3,5 milioi urte dituen; eta 2016an duela 3,8 milioi urteko *Australopithecus anamensis* espezieko lehen garezur osoa topatu zuten.

Baina Lucy izar mediatikoa izan zen hasieratik, eta beste arrastoak haren itzalean geratu dira. The Beatles taldearen *Lucy in the sky with diamonds* abestia entzuten ari ziren aurkikuntza egin zutenean eta horregatik jarri zioten Lucy izena. Pop ikono bihurtuta, eta adituen kezkarako, bira luzeak egin izan ditu munduan zehar, 2006an AEBetan egin zuena, besteak beste. 2015ean AEBetako orduko presidente Barack Obamak hezurak ukitzeko pribilegio zentzuga-

bea izan zuen. Arrastoak aurkitu zituen Don Johansonek berriki Etiopiara bisita egin du, eta zale gazteek selfiak eskatu dizkiote 80 urteko arkeologoari...

Marketin kanpaina bikaina izan du Lucyk mende erdian, eta ezin da ukatu balio handiko arrastoak direnik, bereziki hezurdura osoaren %40 gorde delako eta "munduan gehien aztertu den fosila delako" Kaye Reed IHoko kidearen esanetan. Baina horrek ez du esan nahi *Homo* espezie guztien arbasoa denik, eta beste hautagaiei ere tokia egin behar zaie hipotesietan. Hori bai, Gorge Washington Unibertsitateko Bernard Wood paleoantropologoaren ustez, "Lucy oraindik hautagairik onena da". ●

Non zegoen nire herria duela 750 milioi urte?



ANCIENT EARTH

Ancient Earth mapa birtualak gure herrialdea, eskualdea, hiria... duela milioika urte non zegoen ikusteko aukera ematen du Dinosaurpictures.org/ancient-earth helbidean. Toponimoa idatzi eta 750 milioi urte atzera egiten duen kronologian garai bat aukeratuta, emaitza puntu gorri batekin adierazten du mapak. Baliteke punturik ez agertzea

eta horrek esan nahiko luke aukeratutako garaian erabiltzaileak sartutako tokia oraindik eratu gabe zegoela. Horrez gain, garai hartan toki hori izotzak estalita zegoen ala ez ikus daiteke, eta bestelako informazioa ere ematen du: ordurako intsektuak ba ote ziren, zein landare mota zeuden, narrastirik edo animalia ornodunik ba ote zen... ●

EKOFEMINISMOA BORROKA KOLEKTIBO GISA: DESZAKUNDE FEMINISTA



**LETICIA URRETABIZKAIA GIL ETA
JUNKAL ARRUTI TENA**
EKOFEMINISMOA EDO HERIOTZA

Guretzat, ekofeminismoa ez da teorikoek eta idazleek garatutako teoria. Kolektibo sozial batean parte hartuta eta beste kolektibo eta erakunde batzuekin harremanetan jarrita eraiki dugun ezagutza da. Eta eraikuntza kolektiboak ikusezin bihurtzeak kezkatzen gaituelako, Desazkunde Feministaren ibilbidea eta ikas-kuntzak ikusarazi nahi ditugu.

Beste borroka ekofeminista asko bezala (indigenak edo nekazariak), kolektibo hau mugimendu sozial misto batean sortu zen, Desazkunderan, hain zuzen ere. Berau proposamen antikapitalisten inguruan hasi zen 2009an, eta hasierako diskurtsoa ekologista baino ez zen, mugarik gabeko hazkunderaren zentzugabekeria zalantzan jarri zuena. 2012-13rako, Desazkundeak dozenaka pertsona artikulatu zituen Bilbon eta Gasteizen, eta hainbat taldetan antolatzen zen: txanpon soziala, herri-baratzea, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, lana eta oinarrizko errenta, elikadura, hezkuntza eta Hegoalde Globala, eta abar. Lantalde horietako bat Feminismos Desazkundera zen, feminismoak eta desazkundeak elkar nola eragiten duten aztertzen eta bizitzen zuena. Denborak aurrera egin ahala, Desazkundeak gizarte-mugimendu gisa funtzionatzeari utzi zion, eta aktibo geratzen zen lantalde bakarra Feminismos Desazkundera zenez, Desazkunde Feminista izatera igaro zen. Duela gutxi, Desazkunde Feministak ere desagitea erabaki du, autozainketagatik eta koherentziagatik.

Hamar urte baino gehiagoko prozesu kolektibo horretan, ikas-kuntza kolektibo batzuk atera ahal

izan ditugu. Diskurtsoari dagokionez, barne mailan eta sarean beste eragile batzuekin (Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartea, Trabajadoras No Domesticadas, Babel Munduko Emakumeak, Mugarik Gabe, Emakumeen Etxeak, Desazkundera eta Ongi Bizitzeko Sarea...) hausnartzen jardun dugu elkarriketa, tailer eta hainbat prozesuren bidez, eta taldean idaztera animatu gara, 2013ko Ekonomia Feministari buruzko Kongresuan, esaterako. Prozesu horiei esker, alde batetik, ekofeminismoarekin artikulatzen diren bestelako borroketara jo ahal izan dugu: dekolonialismoa, antiespezismoa, elikadura-subiranotasuna, LGTBIQA+..., eta gure diskurtsoa eta gure praxia konplexuago egiten joan dira. Bestalde, gure gorputzetan eta hurbilekoetan bizi izan dugu zein zaila den proiektuen logikek (GKEenak edo unibertsitatearenak, esaterako) kolektibo sozialen erritmoak, ezagutzak eta protagonismoak balioes- tea, aitortzea eta legitimatzea.



CRISTINA SAEZ

AGENDA

AZAROAK 22 BIRIATU: Basoaren besta egingo da eta Jakoba Errekondok hitzaldia emango du.

AZAROAK 26 ZESTOA: Kosmetika sendabelarrekin liburua aurkeztuko du Garbiñe Larreak. 19:00etan Portale kulturgunean.

AZAROAK 28 OIARTZUN: Neguko sendabelar xarabea egiteko tailerra gidatuko du Garbiñe Larreak. 18:00etan Labore Oarson. Izena emateko laborezain@laboreoarso.eus 676 019 844

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN: idatzi solasaldiak@argia.eus helbidera.

Barne-mailan, desazkundeak zaintzea esan nahi duela ulertu eta praktikatuta izan dugu. Adibidez, gerora izendatu ahal izan genuen taldeen bidelaguntza tresnarekin zaintzen genituen bilerak; taldekideen erritmo, bizi-proiektu eta zaintza-egoeretara egokitzen zen taldea; eskainitako tailerretatik biltzen genuen dirua kolektibizatu egiten genuen, gure egoera ekonomikoen aniztasunari erantzuteko eta beste kolektibo sozial batzuetara birbanatzeko, eta abar. Denborarekin konturatu gara berotasunarekin, goxotasunarekin eta entzutearekin lotutako zaintza kolektibo batzuk naturalizatu ditugula, beste espazio batzuetan aurkitzea hain erraza ez zaiguna. Gainera, kolektiboki sortu ditugun loturek taldearen beraren denbora-mugak gainditu dituzte, artikulu hau da horren adibide. Prozesu horrek, guri ez ezik, beste borroka eta esperientzia batzuei ere balio izan diela espero dugu, eta desazkundera, zalantzarik gabe ekofeminista, sendotzeko balio izan duela. ●

A ZE FAUNA!

ZALDUN, DANTZARI EDO ZAINDARI;
ALTXOR IKUSEZIN, BETIERE

NAGORE ZALDUA MENDIZABAL
ARANZADI ELKARTEKO KIDEA

Antzinako greziar eta erromatarrek izaki mitologikotzat zituzten animalia hauek, itsas hondoa jaio eta hazi ostean, lehorreko zaldien tamainara heltzean, Neptunoren gurditik tiratuko omen zuten. Urrutian ikusten omen zituzten, olatu tontorretan jauzika.

Gaur egun ere animalia bitxia iruditzen zaigu, beste planeta batekoa. Izan ere, itsas zaldia arraina da, zaldi muturra eta buru gaineko koroa dituena. Arrain honek ez du ezkatarik, baina soinean, XV. mendeko zaldunen gisa, gorputz osoko armadura darama. Ikusmena harrapakin bila dabilzan arrain txiki eta bestelako krustazeo txikiak atzemateko egokitua du, kamaleoien antzera, begiak buruaren alde banatara izaki, begirada bi norabidetara kokatuta. Aurpegiera serio eta buruaren makurdurak itxura lotsatia ematen diote. Jatun ona den arren, ez du hortzik eta bere muturraren formak animalia txikien zurrupatzailea dela erakusten digu. Kupela txikia ere badu, bereziki, arretan nabarmen handiagoa. Ez da igerilari trebea, bere hegatsak, ipuineta-ko maitagarrien hegal hauskorrek baitira. Haren buztanak ere ez du gure larreetako zaldien mototsaren antzik, baina, tximuek bezala, kiribilduta izateari esker, hondoko itsasoa denean, itsas ekaitz bortitzen enbatarri aurre egiten dio, itsas belar, koral adar edo beste edozer-tara erraz ainguratuta. Bizilekuari dioten atxikipena dela-eta, itsas zaldiak bikote monogamoetan bizi ohi dira, eta elkarri konplizitate keinuak egiten dizkiote maiz.

Urpean murgilduta ere, benetan animalia zaila da topatzen. Izan ere, duen kamuflajerako trebezia

bikainak Etxalarko uso ehiztariei ere itzal egiten die; ez soilik koloreekin jolasteko duen ahalmenagatik (mimetismoa), baita gorputzeko arantzek duten itxura aldatzeko gaitasunagatik ere. Egun gutxitan, beroki berri bat bailitzan, gorputzeko arantzek luzakin berriak sortuko dituzte, beharren arabera.

Bada bereziki famatu bilakatu dituen beste ezaugarri bat: "Arren haurdunaldia". Arrainen artean, arrautza ernalduen garapena itsasoan eman ohi den bitartean (ugalketa obiparoa), itsas zaldien kasuan, arrak haurdunaldiaren "zama" beregain hartzen du (obobiparoa). Ar eta emearen arteko ugalketan, orduak iraun ditzakeen dantza ikusgarria egin ohi dute; gune itxi eta intimo horretan, emeak arrautzak askatu eta arrak ernaltzen ditu, eta arrak arrautza ernaldutako guztiak bere kume-poltsan jasoko ditu, emea harengandik alden du edo askatu aurretik. Horrela, itsas zaldi arrak izaten dira, arrautzak ernaldutako ostean, haien garapena bermatuko dutenak. Arrak 14-45 egunen ostean askatuko edo "erdituko"



NICK HOBGOOD / CC-BY-SA

ITSAS ZALDI MUTUR LUZEA *Hippocampus guttulatus*

TALDEA: Ornoduna/Arraina.

NEURRIA: 16-300 mm artekoak, gehienak 150 mm inguruak.

NON BIZI DA? Gazteak pelagikoak dira eta beraz, korronteek eramaten dituzte. 120 mm inguruko tamaina hartzean, isatsarekin toki batera atxikitzen dira eta bizi eremu txikia dute.

ZER JATEN DU? Planktona, krustazeo txikiak, arrain txikiak, kopepodoak...

BABES MAILA: Ez daude babestuta.

dira itsas zaldi txikiez, itsaso zabalean barreiatuak izanen direnak (habitat pelagikoan). Ohi bezala, gutxi batzuk soilik lortuko dute helduarora iritsi eta bizilekutat hartuko duten gunera atxikitzea (habitat bentonikoa).

Munduan 50 itsas zaldi espezie inguru ezagutzen dira. Gurean baditugu gutxienez horietatik bi, itsas zaldi muturmotza (*Hippocampus hippocampus*) eta itsas zaldi mutur luzea (*Hippocampus guttulatus*). Biak ala biak nahiko ezezagunak izaki, gure kostaldeko bioaniztasunaren erakusle dira. Ekonomikoki garrantzitsuak diren arrainen populazioak aztertzen diren moduan, bioaniztasuna aberasten duten espezie ezezagunen populazioak ere ikertu beharko lirarteke. Itsas zaldiek ere premiazko populazio-ebaluazioak eta epe luzerako monitorizazio-programak behar dituzte, haien desagertze-arriskua ebaluatu ahal izateko. Epe luzeko ikerketarik ezean, bi espezie hauen egoera zein den ezingo da argitu. Espezie fosil bizia dugu, eta gure itsasoan bizirik dirau oraindik ere. Baina gure esku dago, hala jarraitu dezan, itsasoko habitatak zaindu eta babesteko ahaleginak egitea. Gure ondorengoek itsas zaldia ez dezaten soilik Neptunoren gurditik tiraka ikusi. ●

SAGARREN ISTORIOAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

1 92 milioi sagar 2024. urtean. Segundoero sei sagarretik gora saltzen du Britainia Handiko Tesco supermerkatu kate han ezagunak; ia 27.000 tona. Zenbaki ikusgarriak dira baina are harrigarriagoak dira bertokoak, Ingalaterrako sagarrak direla jakinda. Ez da harrizkekoa British Apple & Pear Limited sagar ekoizleen elkar-teak "2024ko sagar supermerkatu britainiarra" izendatu izana. Supermerkatu kateko zuzendari komertzial Ashwin Prasadek zera esan du: "Britainia Handiko baratzeetatik gure jendearen mahaietaraino, bezeroek bertan ekoiztutako sagar goxoak maite dituzte. Harro gaude britainiar sagargileekin lan egiteaz herrialdeari beste edozein supermerkatu baino sagar gehiago eskaintzeko". Aparteko ahalgina egin dute nekazari sagargileek dituzten premiak asetzeko; adibidez, sagastietan gero eta ugariagoak diren sagar ale handiak, gero eta handiagoak eta komertzialki desegokiak, bezeroengana hurbiltzeko kilo eta erdiko poltsa sortu dute. Datuak datu, dagoeneko Britainia Handian saltzen diren sagarren %50 baino gehiago bertokoak dira.

Joan deneko hamar urte honetan nekazariak, kontsumo elkar-teak, hedabideak, administrazioak eta saltokiek lan handia egin dute horren alde, eta bertoko



Britainia Handian gordinik jaten diren sagarren artean %50 baino gehiago Cox barietatekoak dira.

sagarra bereziki hurbileko eta ikusgarri bihurtu da. Asko ikertu dute sagar tipologia egokiak garatzeko; teknologia, entsegu eta barietateen hobekuntzarekin gustuko dituzten sagarren berezko mami ona hobetzeko. Dena ez da teknologia, baina. Sagar kalitate hobeko eskaintza handitu eta bermatzeko zortzi milioi sagarrondo baino gehiago landatu dituzte. Britainiarren gustukoenak diren sagar barietateen artean bi kanpotik ekarritakoak dira, biak zeelandaberritarak: Gala eta Braeburn. Beste biak bertakoak dira, XIX. mendean sortutakoak biak: Cox's Orange Pippin eta Bramley's Seedling. Lehenari Cox esaten diote eta mahai sagarra edo jan sagarra da; hango Institute of Food Researchek dioenez, Britainia

Handian gordinik jaten diren sagarren artean %50 baino gehiago Cox dira. Bramley's Seedling, berriz, postreak egiteko gehien erabiltzen den sagarra da. Bien historia ederki osatua dute. Ikerketa sakonen ondorioz badakite barietate horien lehen arbola sortu zuen hazia nork erein zuen, handik abiatuta nork txertatu eta hedatu zituen, izena nork eta zergatik eman zien, noiz saltokietara iritsi ziren, noiz hasi ziren landareak saltzen eta abar.

Eta gu, Euskal Herriko sagarrien non gaude? Tokitan! Mendetan sagargilerik handienak izanda-ko euskaldunok gure sagar barietateak ezagutzea ere kosta egiten zaigu. Horien historia inongo txostenetan idatzi gabe dugu oraindik. Bestetik, gure sagar jatea zein mailatan dagoen ere jakingo nuke gustura. Eta, apika larriena, nondarrak ote dira sagar horiek? Hemengo supermerkatuek zer saltzen dute? Errezil edo Ibarbi sagarraren historia eta istorioak noiz jakingo ditugu? Noiz konfirmatuko dugu Britainia Handian lantzen diren bertoko sagar barietate gehienak Euskal Herriatik eramandakoen ondorengoak ote diren? Noiz inbertituko dugu geurean eta geuretzat? Identitaterako, lurrerako, historiarako, osasunerako, nekazaritzarako, ingurumenerako, eta batez ere, gure alaben alabentzako. ●



Sareko, gure elikagai ekologikoen bilatzailea.

ekolurra.eus



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi

Babesleak:

Euskadi, auzolana



BIZI BARATZEA

DURANGOKO AZOKA,
BAGOAZ

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Euskal literaturaren eta kulturaren topaleku garrantzitsuenetakoa da abenduaren 5etik 8ra egingo den Durangoko Azoka, eta 59. edizio honetan ere, Bizi Baratzeak bere postua izanen du, ARGIAkoaren ondoan. Lasai, erraz aurkituko gaituzue-eta: jendetzaren artean gora begiratu, eta urrutira ikusiko duzue kanaberak sabaian dituen postua. Eta, literatura bezala, konbentzituta gaude nekazaritza iraunkorra eta haziak ere ondare kultural garrantzitsu direla gurean. Horregatik, liburuekin batera, Alkartasuna kooperatibako letxugekin eta Aleka elkarteko haziak ere beteko duzue poltsa gure postuan. Noski, idazleekin zuzeneko harremana izateko aukera ezin hobea ere bada Durangokoa.

HAZIAK ETA KOSMETIKOAK NOBEDADE

Jakingo duzue honezkero, *Haziak* liburua argitaratu berri dutela Marc Badalek eta Miguel Arribas *Kelok*. Norbere haziak ekoizten hasteko gida argigarri bezain mardula da Aleka eta Haziera elkarteko kideek idatzi eta Dani Blancok haziak egin dizkien makro argazki ederrekin osatu dutena.

Garbiñe Larreak hirugarren liburua argitaratu du aurtengoan: *Kosmetikoak sendabelarrekin*. Xaboiak eta gelak, hortzetako pasta, xanpua, kremak, ukenduak, baltsamoak, desodoranteak... horiek eta gehiago egiten ikasteko gida da Larrearen azken lana, "zure bizitzatik 100 substantzia toxiko oraintxe kentzeko liburua". Aurtengo uzta osatzeko,

Bizi Baratzearen AURKEZPENAK DURANGOKO AZOKAN

Ilargia eta landareak 2025eko agenda:

Abenduaren 6an, 17:00etan,
Arte eta Historia Museoan.

Haziak liburua:

Abenduaren 6an, 17:30ean,
Arte eta Historia Museoan.

Kosmetikoak *sendabelarrekin* liburua:

Abenduaren 7an, 17:00etan,
Talaia Areto Nagusian.

Ilargiaren egutegia 2025:

Abenduaren 7an, 17:30ean,
Talaia Areto Nagusian.

eta urteroko legez, Jakoba Errekondok eta Antton Olariagak argitaratu duten 2025eko *Ilargia eta Landareak* agenda ere eskuragarri izanen duzue. Eta 2025eko *Ilargiaren Egutegia* eskuratu nahi duenak, urtero bezala, izango du aukera.

Baina, nobedadez gain, aurreko urteetako lanak ere eramanen ditugu Durangora: Josebe Blancoren *Hausnarrean*, Jakoba Errekondoren *Bizi Baratzea* eta *Etxeko Landareak*, Garbiñe Larrearen *Sendabelar baratzea* eta *Sendabelarrekin dakitena*... Norberarentzat edo oparitarako, aukera zabala.

EGILEEKIN AURREZ AURREKO HARREMANA

Liburuen egileak ere Durangoko postuan izanen dira haien lanak sinatzen. Sinadurarena, idazleekin aurrez aurreko harremanak bultzatzeko aitzakia bat da. Egileei zalantzak galdetzeko, proposamenak egiteko, edo, besterik gabe, haiekin elkarrizketa bat izateko aukera ederra izanen da azokan. Jakoba Errekondo eta Garbiñe Larrea egunero egonen dira postuan; *Kelo* Arribas ostiralean eta larunbatean; Marc Badal ostiralean; eta Josebe Blanco larunbatean. Lurra eta landareak gustuko badituzue, bada, hurbildu zaitezte Bizi Baratzearen postura. ●



DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

“ ” Hitzak harriak dira Ernauxentzat, eta idazketa labana

Leire Lakasta Mugeta

Annie Ernaux (Lillebonne, Normandia, 1940) idazleak bere poetikaz eta horren funtzioaz egindako hausnarketak jasotzen dituen elkarrizketa-liburua euskarara ekarri du Leire Lakasta Mugetak (Iruñea, 2002): *Idazketa labana bat da* (Katakarak, 2024). Idazketaz, hautu estetiko eta politikoez eta euskarazko itzulpengintzaz aritu da solasean, besteak beste, Ernauxen liburuaren bueltan.

 LARRAITZ FAGUNDEZ OSA  DOSPORDOS / ARGIA CC-BY-SA

Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua bukatu zenuen iaz, eta testu laburren bat itzuli duzun arren, hauxe da euskarara ekarri duzun lehen liburua: *Idazketa labana bat da*. Duela gutxi aurkeztu duzu, Katakraekin. Nolakoa izan da esperientzia?

Itzultzaileok denbora asko ematen dugu itzuli behar dugun testuarekin, egilearekin... lanean, harreman estua sortzen baitugu. Nire kasuan, plazera izan da Ernauxekin hilabeteak igarotzea. Gainera, ezin borobilagoa izan dela sentitzen dut, benetan aberasgarria, hain justu, idazlea bera bere poetikaz mintzo delako liburuan, eta hori oso lagungarria izan zait itzulpen prozesuan, bere idazketa nolabait errespetatzeko eta nik hautuak egiteko.

Liburu berezia da, bai generoari

bai edukiari dagokionez. Zer azpimarratuko zenuke?

Ez da orain arte euskarara ekarri diren Ernauxen beste liburuak bezalakoak. Saiakera gisako bat da, Ernauxek idazketa jarduna ulertzeko duen moduari buruzkoa. Gutxi gorabehera, urte batez Frédéric-Yves Jeannot izeneko idazleak galderak egin zizkion Ernauxi, eta azken horrek erantzun posta elektronikoko bidez: nola ulertzen duen idazketa, non kokatzen duen bere bizitzan, zer funtzio esleitzen dizkion, zer ezaugarri dituen bere idazketa proiektuak... Ernaux ezagutzen duenarentzat, modu bat da are gehiago ezagutzeko; eta ezagutzen ez duenarentzat, egokia da bere literatura-hurbiltzeko.

Katakarak argialetxeak berak proposatu dizu liburu hau itzultzea.



Uste duzu ezaugarri horiengatik aukeratu duela?

Bai, liburu bereziki politikoa delako, saiakera generotik hurbil. Ernauxen lan literarioa interesgarria eta apurtzailea da, bere idazketa jardunaren emaitza materiala, nolabait esatearren. Baina jardun horren atzean dagoen guztia da interesgarria. Eta hori ez da bakarrik autorea, autorea non kokatzen den ere bada.

Sakondu dezagun: zertan da apurtzailea Ernauxen literatura?

Edukia eta forma aparteko bi gauzatat hartzen dira askotan. Ernaux apurtzailea da bi zentzuetan, eta, areago, defendatzen du ezin direla bereizi. Liburuan ongi azaltzen duen moduan, ez du forma hautatu estetikoki “ederragoa” iruditzen zaiolako, edukiak berak “determinatu” duela dio. Idazketa oso zorrotza da, zehatza, apainguririk gabekoa. Edukiari dagokionez, bere bizitzatik, memoria-tik eta subjektibitate-tik abiatzen da kondizio batez hitz egiteko: Ernaux langile jatorriko emakumea da eta kontzientzia horrek determinatzen du bere idazketa. Sistema honek ito egiten ditu bera eta bere liburuetan ageri direnak bezalako pertsonak, langile klasekoak. Horien ahotza literaturan jartzeak gizartearen kontraesanak azaleratzen ditu. Hala ere, modu ez populistan kontatu nahi du hori dena. Ahalko luke idatzi oso erromantikoki, pobre izatea idealizatu, baina ez:



kontakizun ahalik eta objektiboena bilatzen du, egiatik ahalik eta hurbilena.

Esplizitua da Ernaux bere asmoetan, ez du bere idazketaren helburu politikoa ezkututzen.

Horregatik da interesgarria niretzat. Ez hainbeste bere figura espresuki; Ernauxek izan ditzake guztiz bat ez natorren iritziak ere, edo zalantza sortzen dizkidatenak. Baizik eta interesgarriak dira esaten dituen gauza batzuk, gurean hausnarketa propioak egiteko erabili ditzakegulako. Adibidez, Frédéric-Yves Jeannetek engaiamendu politikoz galdetzen dionean modu zuzenean, Ernauxek erantzuten dio ekintza politiko gisa egin dezakeen onena idaztea dela, bai, baina ez dela egiten duen bakarra eta ezin dela konpromiso politikoa horretara mugatu. Nire ustez hori da azpimarratzekoa: engaiamendua idazketatik harago joan behar dela, idazleak ez duela superboteririk. Bide beretik, ez du onartzen literatura soilik estetika kontua dela diotenen postura, politikarekin deus ikustekorik ez duela defendatzen dutenena.

Artearen ustezko autonomiaz hitz egin ohi da. Pentsatu ohi da arteak ezin diola menderatu deusi. Kurioski, menperatze gisa ulertzen da, eta horregatik arbuiatu, adibidez, mugimendu edo asmo politiko batzuen mesedetara egitea artea, ez ordea artea merkatuari azpiratzea.

Eztabaida hori, artea eta politikaren artekoa, garrantzia hartzen ari da azken urteetan berriro Euskal Herrian, eta zorionez badago artearen funtzio politikoa inguruan proposamen bat baduen jendea. Urrundu behar gara pentsatzetik artea edo idazleak aparteko zerbait direla, zerbait ia mistikoa. Ernauxek liburuan dioen bezala, literaturak balio dezake ordena arrakalatzeko edo betikotzeko, eta inork ezin dio horri ihes egin.

Idazketa labana bat da du izenburua liburuak. Zer esan nahi du?

Ernaux berez ez da batere metafora zalea, baina horrelako konparazio bikainak ditu. Ez du abusatzen, baina erabiltzen dituen zorrotzak dira. Hitzak beretzat harriak direla dio, eta idazketa labana. Euskaraz beste era batekoa izan zitekeen esaldia, bistan denez, behar bada egokiagoa gramatikalki. "Idazketa labana baten gisakoa da", adibidez. Baina

horrela egitea aukeratu dut, nahita. Forma horrekin Euskal Herrian ongi eza gutzen dugun Gabriel Arestiren aipuari egin nahi izan diot erreferentzia: “Poesia mailu bat da”. Bertol Brecht-ek ere esan zuen artea mailua dela, eta aski ezaguna da hori ere bai. Ausartzen naiz esaten modu antzekoan ulertzen dutela denek ere artearen funtzio politikoa. Hiruren ustez mundua eraldatzeko lanabes izan daiteke.

Ernauxen idazketa zorrotza dela diote. Jeannetek *kliniko* hitza erabili du, Ernauxek berak *labana*. Norbaitek esan ahalko luke hotza dela, afekturik gabekoa. Langile jatorrikoa da eta etxean ikasi duena da erabiltzen duen sintaxia eta lexikoa. “Apainduriarik gabea”, bere hitzetan. Hori bera ere bada klase baten lengoaiaren ezaugarria. Normandiako elementuak ere baditu. Hona liburuko aipu bat: “Mintzaira ez legitimoek darabilten lexikoa baliatu nuen, sintaxi herrikoia”. Euskaldunok agian ez dugu bete-betean jasoko hori, ez gara frantsesez irakurtzen ari ebidenteki, ez ditugu frantsesen erreferentzia literario eta kultural berak.

Zentzu horretan, barne gatazka izan nuen liburua itzultzeko erabakiak hartu behar nituenean. Azkenean, borobila dela uste dut hartutako bidea: ekialdeko euskaran egin dut itzulpena, nafarrera gisako batean, eta Iruñeko argitaletxe batendako, gainera. Ernauxen literatura periferikotzat har daiteke, itzulpengintza literaturarekiko bezala, emakume langileok periferian gauden gisan, eta saiatu naiz itzulpena elementu periferiko horiez josten. Oso babestua sentitu naiz Ernaux itzultzen. Berak esaten dituen gauza horiengatik sentitu dut ongi zegoela nik nire euskaran egitea.

“Egia” bilatzen duela dio Ernauxek, subjektibitatek abiatzen dena, baina ez dena erortzen psikologismoan: soziologikoa eta politikoa den egia bilatzen du. Auto-soziobiografia deitu zaio egiten duenari. Brecht aipatzen du hori azaltzeko: “Besteen baitan pentsatzea eta besteek haren baitan”. Bai, esan dudanari tiraka, autobiografia egiten du, baina *auto* izateri uzten dio soziologia bat deskribatzen duela, soziologia bateko pertsonen errealitate kolektiboa erakusten baitu. Asmo horrek egiten du bere obra izatea auto-soziobiografikoa. Horrela bakarrik hartzen du zentzua *ni*-tik hitz egiteak, fokua kontatzen duenean dagoelako, ez norba-

“ ”

Urrundu behar gara pentsatzeetik artea edo idazleak aparteko zerbait direla, ia mistikoak. Ernauxek liburuan dioen bezala, literaturak balio dezake ordena arrakalatzeko edo betikotzeko

nakoan. Eta edonor izan daiteke *ni* hori. Zeri buruz idatzi aukeratzen duenean iruditzen zait ez duela egiten interes propiotik: lotsa, estigma soziala eragin dionari buruz egitea erabakitzen du, eta ez zaio samurra, baina funtzioa badu.

Gainera, interesgarria da pentsatzea Euskal Herrira eta euskarara ekartzen dugun unean pixka bat aldatzen dela gizartean bere testuek betetzen duten funtzioa: ez dira berdinak Frantziako jendarrea eta garai historikoa, edo gaur egungo gure gizartea. Euskal emakume idazle batzuek aipatu dute hori, nabaritu dutela haien lanek gero eta harrera hobea dute-

la, publikoak gehiago konektatzen duela orain, duela hamar urte baino.

Zer uste duzu, zer harrera izan duela Ernauxen literaturak Euskal Herrian? Genero auziak hartu duen dimentsioarekin lotuko nuke, agian. Argiki bere kondiziotik idazten duen idazlea da. Eta zer da bera? Langile klaseko jatorriko emakumea. Hortik, horrek baldintzatuta idazten du beti. Uste dut 2022az geroztik, Nobel saria irabazi zuenetik, *boom*-a izan duela Ernauxek. Ez da kasualitatea. Gizartearen eraldaketak ahalbidetu du. Esan nahi dut, Nobel saria irabazi izan balu duela hogeit hamar urte, ez dut uste egungo harrera eta eragina izanen zuenik Euskal Herrian, eta hori da orain badaudelako baldintza batzuk horrelako gaiek. Pentsatzen dut Ernauxen berri duen euskal irakurle estandarrek ez duela arbuatu Frantziako sektore batek egin duen bezala. Kontrara, iruditzen zait ongi hartu duela eta horregatik egon dela *boom*-a. Irakurle talde askok irakurri dituzte bere liburuak, euskal idazle askok esan dute Ernaux erreferentzetat dutela. Itzulpen kopuruak erakusten du eragina egon dela, baita idazleengan ere, testu originalak sortzerakoan.

Eider Rodriguez da Ernauxek bere literaturan izan duen eraginaz hitz egin duen idazle horietako bat, eta hitzaurrea egin du *Idazketa labana bat da liburuan*.



Bai, berak maiz aipatu du Ernaux bere erreferenteen artean, eta hitzaurre bikaina egin du. Ernauxi buruz esan beharreko guztia jaso du, nire ustez, hitz gutxitan. Ez dut gehiago aurreratu nahi, jendeak irakur dezan.

2002an ekarri zen lehen aldiz euskarara Ernaux. *Pasio Hutsa* (Igela, 2002) itzuli zuen Joseba Urteagak, 1992an idatzitakoa. Harrezkero, beste sei eleberri itzuli dituzte Urteagak berak, Gema Lopez Las Heras, Itziar de Blas eta Xabier Aranburuk. Aiora Jakak itzulitako *Neska baten memoria* (Igela, 2024) ere aurten argitaratu da.

2000ko hamarkada hasieran bere hiru liburu itzuli ziren, eta gero etena, ia hamar urtekoa, eta gero berriz berdin. Ia itzultzaile bat dago liburuko. Badu horrek zergatia, nire ustez. Euskal literatur sistema ahula da, aintzat hartu behar da hizkuntza gutxitu baten literatur sistemaz ari garela, eta itzulpengintzak badu horrelako funtzio nahiko berezi bat kasu honetan, euskal literaturaz mintzo garenean. Hemengo itzulpengintza Euskal Herriko eta euskal hizkuntzaren baldintzek ezaugarritzen dute, noski. Orduan, itzulpenen erritmoa desordenatua da askotan. Ahalik eta hobekien egiten da, baina ez dago beti aukerarik irakurleek eskatzen dutena momentuan itzultzeko.

Belaunaldi berria al dator euskal itzulpengintzara?

Belaunaldi aldaketa ematen ari da, bai, eta ari da geroz eta gehiago horri buruz hitz egiten. Gainera, belaunaldi berriei bidea errazteko asmoa dago, zorionez. Miñaberri beka berria hor dago, esaterako. Nik ez dakit zergatik ez den lehenago gertatu belaunaldi aldaketa hain



“ ”

[Euskal itzulpengintzan] ez dakit zergatik ez den lehenago gertatu belaunaldi aldaketa hain modu esplizituan, baina uste dut baduela zerikusirik panorama politikoarekin

modu esplizituan, ez dakit hori analizatzen, baina uste dut baduela panorama politikoarekin zerikusirik. Polita da eta aberasgarria, baina egia da, uste dut,

ezinbestean gertatu behar zuen zerbait dela. Beharretik datorren belaunaldi aldaketa dela esanen nuke. Positiboa da, noski, itzultzaile perfila aldatzea eta askotarikoa izatea.

Hala ere, honekin ez dut inola ere esan nahi aurreko belaunaldia arbuiatu behar dugunik. Kontrakoa, asko miresten dut egin duten eta egiten ari diren lana eta nik asko dut oraindik ikasteko. Gainera, oso lan militantea izan dela azpimarratu beharra dago. Eta uste dut gatozen itzultzaileok jarraitu behar dugula tradizio horrekin, kontzientzia politikotik itzultzen euskarara, zoritxarrez desatxikimendua eta etsipena nagusi diren garai honetan. Uste dut, gainera, itzulpengintzak ekarpen handia egin diola euskal literatur sistemari, hil ala bizikoa, sendotu eta egonkortze bidean asko hornitu duelako. Orain, agian, garai honi dagozkion erronkekin pentsatzen egon beharko genuke. ●

Kazetaritza Saria, finalistak:

Nerabeak eta sexu-heziketa: pornoa ote da arazoa? (June Fernandez, ARGIA)
Juana (Jon Artano Izeta)
Feminizketak (Berria)
Bada (Ipar Euskal Herriko gazteen hedabidea)

Komunikazio Saria, finalistak:

Ikusgela (Euskal Wikilarien Kultura Elkartea)
Ezer ez eta festa podcasta (Berria)
Ez hain ondo bideopodcasta (EITB Podcast)
Flop Kultura podcasta (Euskalerrria Irratia)

Ohorezko mugarria:

Ana Galarraga Aiestaran
kazetariari, zientzia-kazetaritzan
urteetan egindako lanagatik.

Noiz: Azarok 27, 18:50etan



Non: Andoaingo Bastero Kulturagunean





Puzleak

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA AINHOA URIENEN BIZITZA BAT MAILEGUAN, LIBURUAREN PASARTE BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

8	7	5	1		4	2		9
			9					4
	4		7	5		1		
	5	2				3	9	1
	9	6	5			8	4	
3	8							2
			2	6	1		8	5
5		1	8	4		7	2	
4	2	8		7			1	6

ERRAZA


	5		7					8
8		2	1		6		9	3
				9	4			
9				3			2	
					5			1
			4	1		7		
		3		1				
		8						
7	5					4	1	

ZALIA

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Azken proba. 2. Idiaren okela.
3. Niri buruz. 4. Nardo.
5. Zuhaitz mota.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				O	B	A	T	A
2	B				A	M	E	N
3	E	L				L	A	N
4	I	K	A				O	R
5	I	R	A	G				I
6	B	O	R	B	O			

EBAZPENAK

4	2	8	3	7	5	9	1	6
5	6	1	8	4	9	7	2	3
9	3	7	2	6	1	4	8	5
3	8	4	9	1	7	6	5	2
1	9	6	5	2	3	8	4	7
7	5	2	2	4	8	6	3	9
6	4	9	7	5	2	1	3	8
2	1	3	6	9	8	5	7	4
8	7	5	1	3	4	2	6	9

ERRAZA

6	7	5	8	9	3	4	1	2
1	9	8	4	6	2	3	5	7
4	2	3	5	1	7	9	8	6
5	3	6	2	4	1	8	7	9
2	8	4	9	7	5	6	3	1
9	1	7	6	3	8	5	2	4
7	6	1	3	8	9	2	4	5
4	2	1	5	6	7	9	3	8
3	5	9	7	2	4	1	6	8

ZALIA

PUZLEA: "NARRATZAILEREN OROJAKILE DUN
ELEBERRI BAT BANINTEZ BESTE ALDEKOAK
DIOENA ENTZUNGO NUKE. BAINA NI
POESIA NAIZ, ETA POESIAK ESAN BAINO
IRADOKI EGITEN DU."
5. LIZAR.
HIZKI BERAK: 1. AKROBATA, 2.
BARKAMEN, 3. ELKARLAN, 4. IKARAKOR,
5. IRAGARKI, 6. BOBORKA.



Berezko lore bat

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE HIKA TEATROA

Bere argi propioa bilatzen ari den loreari itzala dakarkio sustraietara helduta egoteak. Kolore ugari ditu eta ez soilik zuria eta beltza. Horregatik dagokio lurra erein aurretik lantzea, lurpean zein gainazalean distira egin dezan. Ez gara plastikozkoak.

Miren Gaztañagak antzezten duen emakume bat da *Zorretan* obrako protagonista nagusia. Amarekin izandako harremanak inoiz baldintzatu eta oraindik ere desegonkortu egiten duela aurkezten da hasieratik: urduri, nahasita eta emozio sakonez beteta. Bikotekidea zintzo agertzen zaio atzetik, beti errespetuz eta maitasunez, baina harekin kontaktu gabeko erabaki bat hartu du: ama gonbidatzea euren etxera bizitzera. Horixe izango da dramaren gatazka, hortxe hasiko da lurrikara: harreman parentalek etorkizuneko harremanetan eragiten badute, eta hori ulertzea kostatu bazait, eta nirea propioa eraiki badut, eta amak gona janzteko esaten bazidan, eta satorrek bezala lur-azpira sartu nahiko banu, eta bikotea

biluzteko gogoia badaukat, eta atzera joateko arriskua badago eta bakarrik bizi nahi badut...

Honela bada, nola aurkeztu mundura? Harremanen konplexutasun horri buruz hitz egiteko egoera komiko ugari aurkezten ditu lanak: absurdoak eta surrealistikak, sinpleak eta sakonak. Sinboloz eta irudiz beterikoa da, poesiaz jantzia. Etengabe ari da zerbait gertatzen izkina baikoitzean eta keinu txikiak ere badauka esanahia. Kontrasteak bilatzen ditu, era berean, ikuslearen emozio guztietara iristeraino, atximur egiteraino, samurra bezain mingarria baita.

Estiloari dagokionez, erabaki ederak hartu ditu zuzendariak. Antzerki klasikotik edaten duen sofa mardul bat erabiltzetik guztiz hauskorra diren elementuetara: hondarra lurpean botatzea, telefonoak zintzilik, kaxa hutsak, eszenografia mugikorra, pijamak... Nonahi dagoen amaren presentzia eta egotearen eta ez egotearen dikotomia ere izan daiteke gakoetako bat. Horrekin batera,

ZORRETAN

TESTUA ETA ZUZENDARITZA:

Agurtzane Intxaurreaga

AKTOREAK: Miren Gaztañaga, Iñake Irastorza, Jabi Barandiaran

NOIZ/NON: Urriaren 25ean, Donostiako Gasteszenan.

istorio ustez kronologiko bat orainean, iraganean eta etorkizunean kokatzeko gaitasuna dauka. Ez da erraza, gainera, dramarako zineman edo antzerkian guztiz ohikoa den hirukote bat hautatu eta ikuspegi aurrerakoi bat ekartzea. Trentza horrek sortzen dituen korapiloak bestelakoak izatea, eta zaintzari beste zentzu bat ematea, batez ere, protagonistaren garapen pertsonalari eta bere buruaren zaintzari hainbesteko garrantzia ematea; argi-ilunak konplexurik gabe azaltzea eta penarik bat ere ez. Bizitzaren gordintasuna eta edertasuna batera aurkezten ditu, ahulezia eta ausardia, huskeria eta osotasuna. Eta zorrak. Hain pisutsuak izan daitezkeen horiek ezin direla maitasunarekin lotu. Berezko lore bat izateko bidea arantzas beteta dagoela erakustea, baina norberak minik ez hartzeko direla beharrezkoak.

Hala bazan eta ez bazan, inoiz huts egin dizuedanoi, berriro gerta ez dadin eta hurrengoetarako ez espero ezer nitaz. ●



LIBURUA

Francesca eta Maddalena



LA REPUBLICA

BARRENGAIZTO

BEATRICE SALVIONI
(ITZULPENA: FERNANDO REY)

TXALAPARTA, 2024

AMAIA ALVAREZ URIA

Barrengaitzo izenburua aukeratu du Fernando Reyk Beatrice Salvioni-ren *La malnata* itzultzeko. Reyk dio idazlearen ahotsa izaten ahalegindu dela, zubi lana egiten. 2023an jatorrizkoarekin batera beste 30 hizkuntzataraz itzuli zen eta euskaraz irakurtzeko aukera 2024an izan dugu.

Francesca eta Maddalenaren arteko adiskidetasuna ezagutuko dugu eleberri honetan, Italia faxistan kokatuta, zehazki, 1935ean Lambro ibaiak zeharkatutako Milaneko herri batean. Bata "ondo hezitakoa" da, zibilizatua, kristau ona eta emakume rola betetzen ahalegintzen dena. Bestea barrengaitzo da: "deabruak hartutakoa", basatia, zoritxarra dakarrena eta aske bizi dena.

Amama pelikulan gertatzen den moduan gertatzen da hemen ere; familia bakoitzean jaiotzean esleitzen zaio rola

seme-alaba bakoitzari. Kasu honetan herriak izendatu du barrengaitzo, komunitateak erabaki du arbuizatzea eta baztertzea. Brigitte Vasallok "herriko zoroari" buruz hitz egiten duenean bezala da, paper hori jokatu beharko du bizitzan zehar.


Francesca protagonista, ordea, beraren eskutik sartuko da nerabezaroran eta ordura arte ezarri dioten "neska zintzoaren" mugak hautsi ahal izango ditu Maddalenaekin. 12 urte ditu eta bere nortasuna eraikitzen hasiko da etxetik irteten eta kalean, bere lagunaren ondoan, ikasiko dituenei esker.

Elena Ferranteren *L'amica geniale* (Lagun bikaina) lanarekin konparatzen dute, baina badu S. E. Hintonen *The Outsiders* (Errebeldeak -Begiko argitaletxeak euskaratua-) lanetik ere bai: haurtzarora uztean lagunak dira helduleku

nagusi eta haien ondoan egiten zaie aurre bizitzaren bortizkeria eta miseriarri.

Protagonistak ikasiko du beldurrez bizi izan dela ordura arte, eta "kontra egin" daitekeela, baina bereziki, hitzen indarrak jabetuko da. Izan ere, erabiltzen diren hitzak "ahaltsuak eta arrisku-tsua" dira eta "ezin dira esan zer dioten erreparatu gabe". Ondorioz, faxismoak errepikarazten dizkien esaldiei begira jarri edo hitz batzuen inguruko gogoe-ta egingo du: "Maitasuna zen zinemako emakume aktoreek gortinei heltzeko arrazoa. Antzerki hutsa. Itxura, faltsukeria".

Patriarkatuan emakume gazte bihurtzeak dakartzen arriskuez ohartu eta horiei erantzuteko bitartekoak lortuko ditu Francescak, kontziente eta burujabe, "nire izenez deitzea nahi dut" aldarrikatuko du. ●



MUSIKA

Burmuinen borborra ezin eutsi



DEUS KASKEZUR USOPOP, 2024

IKER BARANDIARAN

Deus dugu galtzeko” diote baztandarrek. Eta hala da. Disfrutatzeke egin dute beti musika, haziz joan diren lau musikari trebeen arteko joko eta jolasean. 2008an taldea sortu zutenetik tantaz tanta ezagutzera eman dizkigute kantak, diskoetxe eta ekimen desberdinek hauspotuta, beti fin eta irudimentsu post aterkipe zabal distiratsu bezain trumoisuaren inguruan.

Aurretik beste bi lan luze idatzi bazituzten ere, *Ilgora* aurkikuntza izan zen gutako askorentzat; eta gero etorri zen *Azpisugeak* jauzi nabaria. *Ihesi doaz animaliak*-ek tonika antzekoari eutsi zion eta eutsi zioten ditxosozko pandemia etorri zen arte.

Orain, bat-batean ezerezetik edo luzaroan plazatan deus agertzetik, bueltan dator berrito laukotea, betiko kideekin, bi ahots, bi gitarra, baxua eta bateria formatuan eta haien erritmo eta tenore askean. Berako Atala estudioan grabatu dituzte honako zortzi kantuok Iñigo Irazokirekin.

Ahotsa goxotu dute eta soinua garbiagoa da oinarrian, baina oraindik ere maite dituzte tentsio, intentsitate, joko eta, batez ere, giroak eraikitzea. Diskoa zabaltzen duen *Lotsaren teoria* horren adibide da: erdi-oniriko jaiotzen da, erritmo sarkorrak eta El Desván del Macho-ren antzeko armonia garbiak uztartuta, baina mendietatik urrundu ahala kiribilduta eta harrotuta, noisea go, itsasoratzen da. *Heldu eta badoa*

jostaria da erabat eta tenpo erdietan kokatu arren, soinu amerikarra dauka. *Egia begira* hit hutsa da (haien estiloan), ahots garden ia koralek erdituta intrigazko bateria soil bukaezin baten gainean, Urbizuren tankeran xuxurlatu zein tentsioa handitu eta handitu egiten duena. *Merkealdian*-en tenpo langidoek gogora ekarri dizkirate Flying Nun-eko taldeak eta Antietam bera. *Algoerritmo* ere sopresa da, post-rock bizia, Albini-ren gordintasuna zein noisea batzen dituen. *Hondamendia*-k 1990eko hamarkada alaiago irakurtzen du, eta *Ginen herenegun*-ek intentsitate eta malenkonia handiagoarekin. *Heldu gara mugara* abestuta agurtzen dira goxotasunaren eta irmotasunaren arteko orekan. ●

Exodoa

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Gerta zitekeen beste edozein momentutan, baina ez, orain tokatu da. Badirudi iritsi dela unea X uzteko –lehen Twitter gisa ezagutzen genuen trastea, alegia-. Ez dut lerrorik zarrasteldu nahi motiboak esplikatzeko ze, beste askotan bezala, interesgarriena ez da zer –alegia, Elon Muskek *Mein Kampf*-en 2.0 bertsioa bihurtu duen saretik piratzeko arrazoi konkretuak-, *nola* baizik. Formak inportanteak dira. Formetan fijasen zara, eta pixkanaka-pixkanaka erakusten dizkizute gauza batzuk, eduki esplizituan nekez agertzen direnak.

(Ondorengo lerroetan, beraz, X/Twitterretik alde egiteko moduekin entretentuko gara).

Egia esan, urteak dira tramankulu horrekin gehiago aspertzen naizela surfistak Bardeetako basamortuan baino. Dena oso aurreikusgarria. Eta solemnea. Serioa. Hor txiokatzea, ez txiokatzea, atsegin dut sakatzea, den-den-dena posizionamendu politiko transzendental gisa ulertu behar zela dekretatu zuten zenbaitek duela urte batzuk; eta, hortaz, ez da harrizkoa orain, hanka egiteko momentuan, epika nagusitu izana. Ekin-tza antifaxista omen dugu X/Twitterretik alde egitea. Aitite Artxandan eta Solluben ibili zen fusila eskuan zeukala bizia jokatzen; eta zuk berriz, telefonoko aplikazio bat borratzen duzu. Katea ez da eten.

(Gero clickbait artikulu negargarriena azkar irakurtzeko onartuko dituzun cookiekin hipoteka bat sinatuko duzu konturatu gabe, baina ei, ederra sartu diozu Elon Muski ez ezik, teknokapitalismo guztiari zure kontua ezabatuta).

Egon da jarraitzaile mordoxka bat edukita, besterik gabe, lekuak hustu dituenik. Baina niri gehiago gustatzen zaizkit besteak, badakizue, igogailu batean kabituko litzatekeen follower komunitatea eduki arren, X/Twitter uzteko arra-



zoiak esplikatzeko publikatu dutenak –ai, idazteak ere lotsa ematen dit– “komunikatu ofizial” bat.

(Barre asko egin genuen txiokiñean, bapeatzeak bizitzak salbatzen dituela aldarrikatzeko manifestazioak egin ziztuzten kaiku haien lepotik. Orain algara haiek bueltan datoz, munduari zerbait esateko aplikazio berri baten bila dabil-tzan txiolari guztien muturretan leher-tzera).

Total, oraingoan serioa dela kontua. Asko badoaz. Beste batzuk berriz, beren burua Stalingradon edo auskalo non irudikatuz, frontea ez uzteko erreguka ari dira beraien tropa imaginarioei. Begi hauekin ikusi dut hedabide ahaldugista baten editoriala, esanez X/Twitter fatxei oparitu ordez, egin behar duguna zera dela: Musk hura saltzera derrigortu, plataformaren kontrola hartu, langileen kooperatiba bihurtu eta katxarroari berriz ere jatorrizko izena jarri. Bateria gailur horretan agortu zaie ordea, eta ez dugu inoiz jakingo ze estrategiaren bidez lortu nahi duten birkonkista buru-raino eramatea.


(Mingain gaiztoren batek iradoki du hedabide horretako Lider Gorenaren kasketa dela guztia, orain beste sare batean X-en daukan jarraitzaile kopurua berdintzea zailagoa izango zaiolako berriz ere 71 diputatu lortzea baino. Miztoa zorrotzuta esnatu den batek gaineratu du, akaso buruzagiaren baliio-sisteman bere X/Twitterreko fan kuadrillak gehiago kotizatzen duela diputatu-kopuru horrek baino).

Batekoak eta bestekoak ikusita, niri behintzat gauza bakarra geratu zait argi: sare horretako erabiltzaile zenbaiten botere-delirioa ez dela plataformaren jabearena baino askoz txikiagoa. X/Twitter ez zen kasualitatez bihurtu politikari, kazetari, aktibista profesional, akademiko eta tankerako ofiziodunen sare sozial –baina zer diot sare sozial: Agora!– gogokoena.

(Benetan espero dut hemendik aurrerakoan, zernahi gertatzen dela ere, mota horretako plataformetan egiten dugunari inportantzia gutxixeago eman-go diogula; baita, bide batez, gure buruei ere, horrela, orokorkiro). ●

Koldo Rabadan Izagirre

Superbotereak



10 urrats
eskola
eraldatze
bidean

Haur guztiek dute
superbotereren bat,
helduok hala ikusi ez arren.
Erabil behar genituzke
eskola-proiektua
diseinatzerakoan.



Liburua **16€**
+ Bidalketa gastuak

Eskaintza berezia

Azaroaren 29ra arte:

ARGIAko kide bazara **14€-an** (+ bidalketa gastuak):
azoka@argia.eus (+34) 943 37 15 45

ARGIAkoa eginez gero liburua opari:
argia.eus/eginargiakoa



Aurkezpena

Azaroaren 27an Larraulgo eskolan, 17:30ean
Koldo Rabadan egilea eta beste hainbat irakasle.

Hitzaldiak antolatzeko: solasaldiak@argia.eus

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

TREBETASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 GURE —
BASERRITARREKIN



EUSKO LABEL PRODUKTUETAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

**ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA
TU CARNICERÍA BASQUE LABEL**

hazi

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA